

innobasque


berrikuntzaren
euskal agentzia

agencia vasca
de la innovación

2011/4 Txostena

bazkide

txostena



“Innobasque exchange”

Lankidetza berrikuntza

Hedatu zeure lankidetza-
bilaketa Euskadiko
berrikuntza-plataforman
zehar!



Innobasqueko antolaera sozial batek proiektu berritzaile baterako ideia edo proposamen bat badu, eta partenerak bilatu nahi baditu, osotasunean garatzeko edo haren urratsetakoren batean, Innobasquek haren eskura jartzen ditu bere bazkide - eta aditu - sarearen ahalmena eta know-how guztia, lankidetza eta aliantzak sortzea errazteko, aipaturiko proiektua aberasten eta burutzen lagunduko dutenak.

Hartarako, antolaera sustatzaileak era xehatu eta espezifikoa jakinarazi beharko du zer lankidetza mota bilatzen den eta zer baldintzatan, antolaeraren ezaugarriak eta haren balio erantsia, eta zer eskatzen zaion bazkide lankide posibleari.

Bete ezazu fitxa bat proiektuaren informazio garrantzitsuenarekin eta hona bidal ezazu:

comunicacion@innobasque.com

Innobasquek fitxa hori bere kanalen bitartez hedatuko du, bazkide-sarekoak diren antolaera guztien artean

FICHA

- Izenburua
- Deskripzioa
- Lankidetzaren xedeak
- Jarduera-helburuak
- Zer eskatzen den:
 - _ lankidetza/partaidetza mota
 - _ bazkidearen soslai
 - _ baldintzak
 - _ rola eta garatzeko jarduerak
- Antolaera sustatzaileak lankideari eskain diezazkiokeen abantailen deskripzioa
- Eskariak jasotzeko epemuga
- Harremanetarako xehetasunak

Aurkibidea

Innobasque, gero eta gehiago. Guillermo Ulacia	4 - 5
2 minutu: txostenaren laburpena	6 - 7
I. Aliantza Publiko-Pribatua indartzea	8 - 11
<ul style="list-style-type: none"> > Innobasqueko Zuzendaritza Batzordea > Berritzaileen Topaketa > Berrikuntza irekia funtsezko politketan 	
II. Ingurunearekin lerrokatuz	12 - 21
<ul style="list-style-type: none"> > Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika > Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea Dinamika > Enpresen Azelerazioa Dinamika > Laugarren Sektorea Dinamika > Inguruneak: lankidetzak garatzen 	
III. Euskadi eraginkor batekiko konpromisoa	22 - 26
<ul style="list-style-type: none"> > I+G+b Sistemaren Nazioartekotzea (INSIDI) > Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea Dinamizatzea > Diplomazia berritzailea > Innocampus 	
IV. Berrikuntzaren sozializazioa	27 - 31
<ul style="list-style-type: none"> > Lankidetzak-dokumentuak > Topagunearen web berria > First Lego League Euskadi: berrikuntza-eskola > Minutu bat berrikuntzarako > "Euskal Hiriruntz? Lurralde-benchmarking konparatua Gizarte Berrikuntzatik" ekitaldia > Zerbitzu Robotikako Tailerra > Innobasqueren Astearteak 	
ERANSKINAK	32 - 41
"Berrikuntza ez da burbuila batean bizi", Guillermo Ulacia	
"ZTBP 2015rekin zientzian, teknologian eta berrikuntzan oinarritutako hazkuntza-eredu berri bat bultzatzen ari gara", José Manuel Salinerorekin elkarriketan	
"Cleantech-ek Euskadin negozioa esan nahi du!", Stephen Marcus	
"Laugarren sektoreko enpresa sozialak, errealitate bat Euskadin", Txema Franco	
"2039rako izango da entitate adimendun ez-biologikorik", Claus Risagerekin elkarriketan	
"HIB: identitatea duten laborategiak", Sonsoles Zubeldia	
"Korporazioaren barruan eragile ugari ditugu berrikuntza ekarpen handia egin dezaketenak", Eduardo Beltrán de Nanclaresekin elkarriketan	
"Bilboren birsortzea jarraibide bat izan da", Richard Youngmanekin elkarriketan	
Ezagutza partekatzen:	42 - 47
Hiruhileko argitalpenak	
Jasotako argitalpenak	
Aurkezpenak	



Innobasque, gero eta gehiago

Ghandik hau esan zuen: "Egingo dudana gehiena huskeria bat izango da, baina garrantzitsua da nik hori egitea" eta espiritu horrekin partekatuko nahi nituzke zuekin azken 2 urte hauetako gertaera garrantzitsuenetako batzuk.

Euskal enpresak beren nazioartekotzean lagundu ditugu, Industria, Merkataritza, Turismo eta Berrikuntzako departamentuaren eskariz VII. Esparru Programa Europarrean Lortutako emaitzak 196 milioioak dira itzulkinetan, Euskal I+G+b-ko I. Koaderno Estrategikoan planteatu ziren 180 milioi euroko helburu baten aurrean.

Berrikuntza irekiko prozesuak aktibatu ditugu itun sozialak eta planak egiteko. 14 plan landu dira, gure ekintza Eusko Jaurlaritzako 7 sailetan integratuz (Hezkuntza, Enplegua, Industria, Lehendakaritza, Ingurumena, Osasuna, Etxebizitza). Arestiko 2 kasu aipatuko ditut datorren zikloan amaitu beharrekoak.

Immigrazioaren Ituna, Gai Sozial eta Enpleguko departamentuak bultzaturik, bizikidetzaren aldeko konpromiso estrategiko batean gizarte anitz bat integratuko duen eredu adostu batean bukatzeko osagaiak ditu. Nabarmendu egin nahi dut zer aukera den enplegurako eraikuntza jasangarria, Etxebizitza Jasangarriko Zaharberritze Plan batean garatuko dena -egikaritze-prozesu batean-, zeinean parte hartzen baitute Etxebizitza, Ingurumen, Enplegu eta Industriako sailek, eta zeinek gehitzen baititu praktika hoberenak eta finantzazio-iturri berrietarako sarbidea ematen baitu.

Gainera, 43 i-Taldek sortutako gure kapital intelektualak 28.100 ordu baino gehiagokoa izan da, zeinean parte hartu baitzuten 1.333 pertsonak 2008 eta 2009 bitarte Ann. Horiek funtsezkoak

izan dira plan instituzional bakoitzari lankidetzen eta proposamen-ekarpenen kopuru esanguratsu hori lortzeko.

Erkidego sortzaile eta sortzailekideen gune bat ezarri dugu: Eraldaketa Dinamikak. Garatutako munduko toki guztietan interes handi bat dago irtenbide partekatua bilatzeko. Azken prospekziotan oinarriturik, aro berri baten hasieran gaude, zeinean aurkezten baitira erronka komun batzuk ingurumena, baliabideen kudeaketa, klima eta abarrekin erlazioatuak, era banakoan beteezin daitezkeenak, baizik eta banako gaitasunak eta trebetasunak bat eginez, erkidegoaren onerako planteamenduak. Aurrerapen teknologikoak, Internet, informazio eta komunikazio-teknologiek handitu eta indartu egiten dituzte gure gaitasun konektatzaileka eta harremanezkoak banako adimena gehituz, adimen kolektibo bat sortzen lagunduz

Innobasquen onartu egin dugu erronka hori. Gure erantzuna OPENTRIC kudeaketa-ereduan oinarriturik dago, tokiko eta nazioarteko irismena duen horretan, pertsonen, enpresei, erakundeei irekia, gure aukera eta beharretan zentratutako gaitetan batera lan egiten dutenetan. Hala sortu ditugu Eraldaketako 4 Dinamikak: Eko-berrikuntza, Efi-osasuna, Laugarren Sektorea eta Presentzia Globaleko Enpresen Azeleratzea.

Dinamika horiek mundu-mailako megajoeren analisisan euskarriturik daude, datozen 10 urteetan garrantzitsuak izango direnetan. Dinamiken hautapena gure indarguneen eta gaitasunen arabera burutu da, bai eta hazkuntza ekonomiko eta enpleguko bidezidor berriak sortzeko ahalatasunaren gainean ere. Eredu horren ezaugarri nagusia sor-kidetzatza da, lankidetzatza ez bezala bakoitzak bere erkidegoan egin nahi duena aurkitzeko

aukeran eta nola erabili baliabideak erarik eraginkorrean bermatzen baita. Lan-lerro berri bat da banakoaren aitortza helburu komunei egiten diegun gure laguntzarekin orekatu nahi duena. Ez da erraza, baina Innobasque bere pisu sozio-ekonomikoarengatik pertsona eta eragile esanguratsuak bil ditzakeen bide hori esploratzen ari da, zeinen ezagutza eta konpromisoaren ekarpena Euskadiko erronka eta behar nagusiei era bateratuan irtenbide jasangarriak proposatzean gauzatzen baita.

Dinamikek badute lan-metodologia bat prozesuaren eraginkortasuna errazten dutena, helburuak finkatuz, i-Taldeak osatu behar dituzten sistemako eragile gakoak identifikatuz, baliabideak esleitzuz eta helburuak betetzea monitorizatuz. Metodo hori aplikatzea ekimenen izaera estrategikoak kontuan izanez, sailkatu egiten ditu proiektuak haren itzuleran eta/edo errentagarritasunean oinarriturik.

Dinamiketako bakoitza dagoeneko bere fruituak ematen ari da.

- Eko-berrikuntza

Dinamika hau Euskadi Europaren Hegoaldean eko-berrikuntzako polo bezala kokatzeko lanean ari da LATAM (Latinoamerikako) eta MENA merkatuetarako batik bat. Urrian antolatuko dugu I. Cleantech Daya eta bertan erakutsiko dizkiegu ikerkuntza, teknologia eta enpresarako Euskadik dituen gaitasunak, bai eta etorkizuneko 18 proiektu ere teknologia garbien gaian munduan zeharreko sektoreko inbertitzaile eta enpresa garrantzitsuei.

Orain Euskadi Cleantech hub bezala aurkeztuko dugu Municheko Europe Cleantech-en, ekimen publiko-pribatu bezala, hazkuntzako hiru bektoretan espezializazio handiko euskal korporazio eta ehun industrial dagoelako: energia garbia, ekipamenduen ekodiseinua eta



Guillermo Ulacia

Innobasqueko Lehendakaria

mugikortasun jasagarria.

Eko-berrikuntzako Adituen Batzordean dagoeneko 17 enpresa dira partaide sektoreko lider direnak, bide-orria baliozkotzearen eta lortutako emaitzen ebaluazioaren arduradun delarik.

- Efi-Osasuna

Kronikoen Sarea diseinatu da - Gaixo Kronikoen Euskal Erkidegoa, Osakidetza lider duela Innobasqueren eta gaixo kronikoen i-Taldea lankidetzarekin. Kudeaketa emozionalean oinarritutako lehen sarea da, gaixotasuna duen pertsonarengan arreta jartzen duena eta ez pertsonak duen gaixotasunean.

Katilu proiektua abiarazi du Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzak elikadura-produktuetan merkaturatzea berritzeko, osasunari eta bizi-kalitateari laguntzeko eta ingurumena errespetatzeko lurraldeko osasuna errespetatuz.

Gainera, Zahartze Aktiboaren Nazioarteko Urtea ospatzearen esparruan jarduera-programa zorrotz batean ari gara lanean gizartea eta euskal enpresak gai horretan nazioarteko erreferente izateko kokatzen lagunduko duena.

- Laugarren Sektorea

Goldman Sachs-ek aurreikusten du 2020an munduko BPGaren %49 BRIC eremuko herrialdeek sortuko dutela. Aldi berean, herrialde horietako 1,6 milioi pertsona klase ertain deituan integratuko dira, 6.000 dolar baino gehiagoko errenta-maila duen horretan. Oparotasun-maila 3.000\$ baino handiagoa denean kontsumo-txantiloak aldatzen direnez gero, oinarritzko beharrei ondasun berriak eskuratzearena gehitzen zaie Hamarkada hau biztanlerian segmentu berri hori txertatzeak markatuko du, urtean 70 milioiko erritmoan haz daitekeelarik, eta horregatik ondorioztatzen dugu bezero berriek estrategia eta enpresa-eredu

berriak beharko dituztela.

Laugarren Sektore deituko enpresek eskari sozialari kontu egin diezaiokete eta gainera, bezeroen beharrak asetzen dituzten produktuak eta zerbitzuak garatzen dituzte, kontsumitzaileen bizi-kalitatea hobetzen lagunduz, enpleguak sortuz eta oparotasuna eraginez.

Gainera, Innobasquen aztertu egin ditugu euskal enpresentzat Piramidearen Oinarrian dauden aukerak eta otsailean Laugarren Sektorearen Nazioarteko Mintegia egingo dugu, eta bertan hiru euskal unibertsitateetako ikertzaileek egindako azterlan bat aurkeztuko dugu. Lehen azterlanek berretsi egiten dituzte gure enpresa-ehuna biziberritzeko ahalmena eta bideragarritasuna orientazio horrekin epe ertain eta luzera.

- Presentzia Globaleko Enpresak Azeleratzea

Erresuma Batuan egindako azterlanek adierazten dute hazkuntza -ahalmen handiko enpresa kopuru murriztu bat dela enplegu berriaren eta oparotasunaren arduradunak. Horiek guztiek beren baitan dute elementu bat berrikuntza-gaitasuna da. Gauza bat nabarmentzen da: ahalmena duten eremuetan zentratzen dituztela beren ahaleginak eta beren enpresa-politiken arrakastaren gako bezala kudeaketako bikaintasuna sustatzen dutela. Eta bi urte hauetan, Innobasquek anbizio global eta berritzaileko proiektu eta enpresen garapenean lan egin du. Gaur egun 2 enpresa, HIB eta VIRTUALWARE daude abiarazte-gunean beren hazkuntza Innobasquerekin azeleratzeko.

- Berrikuntzaren sozializazioa

Gure neuronek aktibo jarraitzen dute eta inoiz baino eragile integratzen. Hor dago First Lego League benetako "berrikuntza eskola" bihurtu dena; arestiko Minutu bat berrikuntzarako 80

erakunderen partaidetza izan duena; I. Global Innovation Day-ren arrakasta; gure sare sozialen inpaktu handia 14.000 berritzaile baino gehiago biltzen dituztelarik; edo lerro editorial bat hilero argitalpen bateko erritmoan euskal berrikuntza Euskadiren barruan eta kanpoan kokatzen duena.

Azkenik, ezin dut aipatu gabe utzi ZTBP 2015 lantzeari eman diogun laguntza, analisi berritzaile eta agortzailea bezain partekatua eman, gainera gure dimentsiari aplikagarri zaizkion nazioarteko praktika hoberekin kontrastatua izanik, gure sistemak dituen gaitasunak integratu eta sakontzeko, balio erantsi handiagoko enplegua sortzeko, aberastasuna eta ongizatea eragiteko gizarte osorako iturri izaten irauteko asmoarekin.

Aldi emankor honen ondoren baieztatu dezaket Innobasque ere haustaile bat dela laguntza eta konpromisoari dagokienez euskal gizartean. Desberdina da osagai dituen kideengatik, lankide eta aliatuengatik, bere planteamenduarengatik, bere kudeaketa-ereduarengatik, bere komunikazio-prozesuarengatik, balioa sortzearengatik eta azkenik bere interes-talde guztietan eragiteko duen erarengatik Horregatik guztiarengatik, konbikzio sakon baten jabe naiz, Herrialde hau sentitzen dugunoi dagokiguna eta sinesten dugu ez gaudela batzuetan sortzen diren, Innobasque bezalako gauza onak alferrik galtzeko. Proiektu honetan parte hartzeko aukera eman didazue eta esker on handi batekin gonbidatu nahi zaituztet esperientzia hau partekatuzera. 2012an zehar oraindik zeuenago egin dezazuela proposatzen dizuet zeuen partaidetza areagotuz.

2011ko 4. hiruhilekoa bi minututan



- > Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartu egin du ZTBP 2015
- > Immigrazioaren aldeko Gizarte Ituna abiaraztea Euskadin
- > 200 partaide Gipuzkoa Berritzen-eko Berritzaileen 2º Topaketan
- > 100 antolaera eta nazioarteko 16 inbertitzaile Euskadiko I. Cleantech Day-n
- > 200 partaide Gosasun, bizi-ohitura osasungarriago batzuen aldeko mugimendua abiaraztean



- > Hib eta Virtualwarek Innobasqueko Enpresen Azeleratzailearen zigilua jasotzen dute
- > Bilbao Labs Summit 2012rekiko atxikitze-akordioa sinatzea
- > ESSeko tresna eta estandar nagusiak argitalpen batean
- > ERA-NET 2012 deialdiak aurkeztean 150 bertaratu
- > 2 M € eta 32 ikertzaile berri ZTBESan Iñaki Goenaga Fundazioko beken bitartez
- > 97 antolaera eta 170 pertsona Adimen Emozionaleko Partzuergoan



- > Suka, "The Ten Million Project"-en proiektu irabazlea
- > CRISES (Montrealgo Unibertsitatea), Deustuko Unibertsitatea eta Innobasqueren arteko hitzarmena
- > 10.178 pertsona mobilizatu hiruhileko honetan
- > 34 ekipok parte hartzen dute Euskadiko First Lego League torneoan
- > 79 erakundek 8.523 ideia berritzaile eskaini dituzte "Minutu bat berrikuntzarako" ekimenaren bitartez



- > Presentzia hazten ari gara Sare Sozialetan
 - 4.500 jarraitzaile twitterren
 - 5.133 jarraitzaile linkedinen
 - 10.865 jarraitzaile facebooken
 - Open ideiak: 4.511 pertsona erregistratu
- > 8,5 M € da 2011n zehar metaturiko inpaktu publikoaren balioa
- > 5 argitalpen berri editatu dira

I. Aliantza Publiko-Pribatua indartzea

Zer da Itun Publiko-Pribatua?

Euskadiren Eraldaketa-prozesurako ekarpen berezietako bat da nortasun ahaltsu eta bakarria ezartzen dio Innobasqueri.

Plataforma publiko-privatua gure herrialdearen eraldaketa dinamizatu eta azeleratzeko berezko lursaila da. Sare publiko-privatuaren ahalmena ahalik eta gehien garatzea behar bat da gure gizarterako, zeren eta aukera ematen baitu partaidetzaren eta eraldatzearekin zerikusia duten proiektu eta ekimen desberdinetan dabiltzan eragile guztien ikuspen partekatu baten eroale izateko. Gure osaerarengatik, Innobasque topaleku egokia da ekimenak garatzeko, zeinek zuzenean edo zeharka sektore desberdinetako gizarte-eragileak inplikatzan baititu, lan-barrutietan adituak diren pertsonak, eta proiektuen lider diren erakundeak.

Innobasqueko Zuzendaritza Batzordea

2011ko Zuzendaritza Batzordearen hirugarren bilkura egitea, bazkideen, bertaratu edo ordezkatuaren %93 bertan direla, zeinean Zuzendaritza berritza hurrengo Batzarrean gertatuko dela Elkartearen Estatutuak betez jakinarazi baitzen.

Topaketakoan, 2012-2016 Innobasqueko datorren ziklorako ikasitako ikaspen eta lehenetsunez buruz gogoeta egiteko sortu zen Zuzendaritzako Lan Batzordearen dokumentuko ondorioak partekatu ziren. Batzorde hori euskal errealitateaz duten ezagutzarengatik,

Arazo Sozioekonomikoetarako Lehendakariaren Kontseilu Aholku-emailean parte hartzen dutelako eta Innobasquerekiko beren konpromisoarengatik ospe aitortua duten 6 pertsonak eratzen dute: José Ignacio Arrieta, José M^o Aldecoa, Alejandro Echevarria, Iñaki López de Gandasegui, Josu Jon Imaz eta José Luis Larrea.

Halaber, Manuel Salinero, Zuzendaritzakidea eta Lehendakariaren Idazkari Nagusia denak Zientzia, Teknologia

eta Berrikuntza 2015 lantzen lider izan denak Innobasqueri plan horretan esleitutako misioari eta helburu estrategikoei buruz berri eman zuen, zeinek adostasun handia baitute Zuzendaritzako Batzordearen ondorioekiko. Gainera, jakinarazi zuen Lehendakariak onartu egin duela Innobasqueren Ohorezko Lehendakariatza.

Azkenik 2010-2011 Planean ezarritako helburuak betetzea birpasatu zen. [2011ko azaroaren 17]





Berritzaileen Topaketa

Gipuzkoa Berritzen-ek Kursaal Jauregian egin zuen urteko bigarren Berritzaileen Topaketa. Ekitaldia sareko Batzarrarekin hasi zen eta bertan 2011n burututako proiektuen eta aurrekontua egikaritzearen berri eman zen,

2010-2011 orotidazkia aurkezteko gune bezala balio izateaz gainera.

Ondoren, jendaurreko ekitaldian, Gipuzkoa Berritzen sarea lantzen ari den proiektuetako batzuen berri eman zen:

- PIBx2 Proiektua, Berrikuntza ETEetan
- 70 langile baino gehiagoko enpresa industrialetan jabetzaren adierazlea, zeinetan guztira 147 enpresa aztertu baitira. Ondorio nagusia: zenbat eta

partaidetza handiagoa, lurralde-aberastasun handiagoa

- Pack fiskal-finantzarioaren proposamena. Hurrengo pauso bezala, proiektua inplementatu nahi duten enpresak erakarri eta batu nahi dira, hau da, jabetza langileengana hedatu
- The 10 Million Project-ek saria eman zion Suka proiektu irabazleari [Donostia, 2011ko azaroaren 29]

Berrikuntza irekia funtsezko politiketan

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO PLANA 2015

ZTBP 2015 Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak aurkeztu zuen abenduko hilean, azaroan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluari (ZTBK) aurkeztu eta gero, eta haren ekarpenak bertan txertatu ondoren.

Hartara itxi egin da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015 lantze-prozesuaren azken eta laugarren urratsa, 350 pertsona baino gehiagoren partaidetza izan duena enpresen, unibertsitateen, ikertegien eta berrikuntzako euskal sistemaren beste eragile batzuen. Hori guztiek ekarpenak egin dituzte prozesuan zehar garatutako 30 bilkura eta kontraste-foro baino gehiagotan.

Innobasquek proiektuan egin duen oinarritzko lana ZTBKtik jasotako orientabide estrategikoak helaraztea ahalbidetu duten metodologiak hornitzea eta haiek plan bihurtzea izan da, haien helburuekin, programekin eta tresnekin. Hori guztia zientzia, teknologia eta berrikuntzako politika-gailetan nazioarteko praktika hoberekin kontuan hartuta.

ZTBP 2015 berriak azken helburutzat Euskadiko hazkuntza ekonomikoa, enplegua eta ongizatea indarberritzea ezartzen du, balio erantsi handiena sortzen duten jarduerak bultzatuz zientzia, teknologia eta berrikuntzaren bitartez. Eta horretarako honako sailok antolatzen dira:

1. Erakunde arteko Plana aberastasuna eta ongizatea sortzea helburu duena
2. Inguruneko elementuak interpretatuz ulertu, aurreratu eta planifikatu ahal izateko
3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako gure Sistemaren kokamendua
4. Fokuratze-apustua (5 merkatu eta 3 zehar-lerroko gaitasun)
5. Arkitektura Estrategikoa (9 helburu eta 22 lerro estrategiko, dagozkien programekin eta tresnekin)
6. Maila-aniztuneko gobernantza-eredu bat ezartzen aurrera egitea
7. Aurrekontu-konpromiso bat I+Gean %3ko gastua lortzeko BPGaren gain 2015ean



EUROPAKO BATASUNA: ALDAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA SOZIALERAKO PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzara Europa Batzordeko ekarpenetan Gizarte Aldakuntza eta Berrikuntzarako Europako Batasunaren Programa (GABP) Erregioen Batzordearen Irizpena lantzeari begira (EBE) Europa 2020ri buruz.

EBE enpleguaren eta gizarte-politikei laguntzeko tresna bezala aurkezten da eta Batordearen proposamen baten osagai izango da EBaren erregio-, gizarte- eta enplegu-politikaren gaian 2014-2020 aldirako.

Programak politiken koordinazioa, praktika hoberenak batera ezartzea, gaitasunak garatzea eta politika berritzaileak entseatzeari babesteko dituen, arrakasta handiena jaso duten neurriak indartzeko asmoz Europar Funts Sozialaren laguntzarekin. [BERRIKUNTZA SOZIALA]

IMMIGRAZIOAREN ALDEKO GIZARTE HITZARMENA

Joan den abenduan egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian Immigrazioaren aldeko Gizarte Hitzarmena abiaraztea Euskadin Eusko Jaurlaritzako Immigrazioaren Zuzendaritzak bultzaturik. Innobasquek ekarpena egin du diagnosi partekatua ezartzen immigrazioaren fenomenoak Euskadin planteatzen dituen erronka eta aukerei buruz.

Ekitaldi hartan, zeinean hasi baitzen prozesu parte-hartzaile bat, sektoreko entitate nagusiei, bai eta EAEko beste eragile mota batzuei ere Hitzarmenaren oinarri-dokumentu bat aurkeztu zitzaizkien, zeina abiatzen baita Euskadi bihar gaur dena

baino gizarte anitzagoa izango den konbentzimendutik.

Aniztasuna aukera bezala ikusten da euskal gizarterako, eta horrek oinarri-dokumentuaren egileen iritziz, immigrazioari buruzko ikuspegia aldatu egin behar du, errealitate estrukturala baita eta ez fenomeno iragankor bat. Beraz ahalegin sozial eta erakundezkoa ez da hainbeste bideratu behar abegia egitera baizik eta aniztasuna kudeatzera eta, batez ere, kolektibo etorkina eta bigarren belaunaldiak integratzera, horiek, batez ere, hezkuntzaren bitartez. [Bilbo, 2011ko abenduaren 14] [BERRIKUNTZA SOZIALA]

COEDUCA PROIEKTUA

Basque Center on Cognition, Brain and Language-k (BCBL) eta Jesusen Bihotz Sakratua Ikastetxeko Karmeldarrek azken horren egoitzan COEDUCA proiektua aurkeztu zuten, zeinek elkartzen baititu zientziz gailenak ikerkuntza-programa berritzaile eta diziplina-arteke batean, zeina baitago diseinatua gaitasun kognitibo nagusiak aztertzeko heziketa, irakurketa eta arretarako, bereziki zentratuz irakurketa lortzeko, testuak ulertzeko eta gaitasun horiek arreta- eta emozio-mekanismoak arautzen dituzteneko moduan.

Luzetarako azterketa hau hezkuntza-barrutian "Garuna ezagutu hezkuntzako bikaintasunerako" argitalpenetik dator eta 2010ean aurkeztu zen. Azterlanak emaitzak eskainiko ditu eta horrek etorkizunean oinarri zientifiko esperimendu bat izatea ekarriko du Neurohezkuntzarekiko harremanetako aurkikuntzera. [Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 13] [BERRIKUNTZA SOZIALA]



BIZITZAN ZEHARREKO IKASKUNTZAREN NAZIOARTEKO BATZARRA

Innobasquek koordinatu eta dinamizatu egin ditu lan-jardunaldiak Bizitzan zeharreko Nazioarteko Ikaskuntzaren Batzarrean hesituak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Sailak deituak, lehiakortasunaren ardatz nagusi gisara hezkuntza kokatzeko helburuarekin herrialderako.

Partaideen ekarpenak, batzarra ixtean aurkeztu zirenak, Eusko Jaurlaritzak editatutako liburu batean jasoko dira. [Donostia, 2011ko azaroaren 7-9] [BERRIKUNTZA SOZIALA]



EMAKUMEAK LANDA BARRUTIAN

Lankidetzak aktiboa zenbait topaketatan, Landako Emakumeen Batzordeak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantzako Ingurumen Saileko Kabinete Zuzendaritzak sustatuak, Eneko landa-emakumeek lor dezaten garatzeko, osasunerako eta ongizaterako eskubide errazteko esparru bat izan dezaten, bai eta beren lanaren aitortza ere.

Lankidetzak horren fruitu, Euskadiko Landa Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu Zen izenburu honen pean: "Emakumeen partaidetza eta ekarpen ekonomikoa landa-ingurunean". Ekitaldiak Yolanda Jubeto, UPV/EHUko irakaslearen eta ekonomia feminista aditua denaren hitzaldi espezializatua izan zuen, ekitaldiaren harira emakumeek landa-gunean egiten duten partaidetza eta ekarpen ekonomikoa zentratuz.



Topaketako pertsona partaide guztien ekarpenak[ondorio-agiri batean bilduko dira eta 2012ko lehen hiruhilekoan prest izango da. [Ordizia, 2011ko urriaren 15] [BERRIKUNTZA SOZIALA]

Lan-lerro irekiak

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2015 Plana
- Euskadi Bizitzan zeharreko Ikaskuntzaren Lege baterantz Euskadin
- Bizitzan zeharreko Ikaskuntza Proiektu Europarra - LABS2LEARN
- Lehendakariaren Kontseilu Aholku-emailea
- Enplegu Estrategia
- XXI. Mendeko Udalleriak
- EcoEuskadi 2020
- Immigrazioaren aldeko Hitzarmena
- Landa-barrutiko emakumeak
- Hiritarren berrikuntza eta partaidetza tokiko herri-politikan
- E-Inklusioa

EMAITZAK

- Gipuzkoa Berritzen-en Batzarra eta 2. Berritzaileen Topaketa [Donostia, 2011ko azaroaren 29]
- Immigrazioaren aldeko Hitzarmena abiaraztea Euskadin [Bilbao, 2011ko abenduaren 14]
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015 onartzea Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren aldetik [2011ko abendua]

ALBISTE IZANGO DA

- XXI Mendeko Udallerriaren Ikuspena Tailerraren ondorioen dokumentua aurkeztea
- Inkestean emaitzen aurkezpena gizarte berritzaile baterako balioei buruz
- Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari Ikaskuntza Iraunkorraren Legea aurkeztea onarpenerako
- Euskadiko Landako Emakumeen Nazioarteko Egunaren VIII. edizioaren ondorioen argitalpena "Emakumeen landa-ingurune partaidetza eta ekarpen ekonomikoa"

II. Ingurunearekin lerrokatuz - EEL

Estrategia Ekintzako
Lerroak 2010-2012

Zer dira eraldatze-dinamikak?

Gure erronkak gizarte aurreratu guztiek dituztenak dira garapen eta hazkuntza jasangarri baten eredurantz beren geroa bideratzen dutelarik, bere industriaren ekarpena lagundu eta babesteko nahiarekiko koherenteak, lehiakortasuna eta munduan zehar beren presentzia gehituz. Helburu orokor hori ezartzeko erabiltzen den bidea berrikuntzatik igarotzen da, nola Euskadin hala munduaren


gainerakoan, zeren eta berrikuntzan egon baitaitezke prozesu horren gakoak. Bide horretan, Eraldaketa ortmugan dela, euskal sare berritzailea hedatu eta sektore gakoiei ezartzeko lanean ari gara.

Aktibatze-helburu horrekin 5 makro-joera nagusirekin, Innobasquek hasieratik landu dituen 5 eremurekin lerrokatzen gara:

- > Garapen soziala
- > Garapen ekonomikoa
- > Jasangarritasuna

- > Osasuna eta bizi-kalitatea
- > Agertoki berriak

5 eremu horiek gurutzatzearen gaur eguneko emaitzak lau eraldatze-dinamika handi definitzeko aukera eman digu, erabakigarriak jotzen ditugunak eta 2010/2011an gure ahaleginak eskaintzen dizkiegunak: Ekonomia Ekoberritzailea, Enpresak Azeleraztea, Laugarren Sektorearen Garapena eta Nazioartekotzea (ekonomia soziala), eta Gizarte Efizitasungarria eta Bizi Kalitatea.





DINAMIKA Ekonomia EKOBERRITZAILEA

Dinamikaren xedeak

- > Lidergo Teknologiko Lehiakorreko marka bat sortzea
- > Oreka bilatzea hazkunde ekonomikoa - enplegua eta ingurumen-eraginaren (garapen jasangarriaren) artean
- > Inbertitutako kapitalaren gain marjinak eta errentagarritasuna hobetzea



EKO-FINANTZAZIOA - CLEANTECH DAY

> I. Cleantech Day Euskadin egitea, Innobasquek eta Deustuko Unibertsitateak antolatuz, Euskadin teknologia garbien sektorearen garapena sustatzeko xedearekin. Inbertitzaileen, enpresa-taldeen, enpresen, ekintzaileen, erakunde publikoen eta ekoberrikuntzari atxikitako eragile bat baino gehiago elkartu ziren Bizkaiko Zientzia eta Teknologiko Parkean lehen eskutik ezagutzeko

teknologia garbien euskal sektorearen garapen-maila ezagutzeko, bai eta startup edo hazkuntzako enpresen eran proiektu zehatz batzuen multzo bat ere. Teknologia Garbien I. Eguna bi jardunaldi osagarri izan zituen: Europe Cleantech Advisory Boarden seiheroko bilkura eta Spain Cleantech Open, Ideien Lehiaketa Globalaren finalaren ospaketa. Bi topaketa horiek Euskadin teknologia garbiekin zerikusia duten zientzia,

teknologia, berrikuntza eta enpresako ekosistemako eragileak mobilizatzen lagundu zuten, pauso bat aurrera emanez oraingo eta geroko ahalmen handiko sektore bat eraikitzen, eta ikusgai eginez proiektu zehatzak bizi-zikloko urrats desberdinetan (ideiak, startupak, ETEak eta enpresa sendotuak) Dokumentu bat argitaratu da Cleantech jardunaldien ondorioak jasotzen dituen, lortutako lehen emaitzen jarraipena egiten du, eta lehen urratsen aurrerapen bat eskaintzen du. [2011ko urriaren 3-4]



- > Cleantech Forum Europa 2012: Innobasquek hitzarmena egin du Cleantech Groupe-kin Euskadi plataforma gisa kokatzeko Europaren hegoaldea teknologia garbien garapenean 2012ko Municheko Forumean
 - Ekoberrikuntzako adituen batzardea: batzardearen bigarren saioa egitea Cleantech HUB-en partaidetzaren planteamendua finkatzeko eta antolara berriak txertatzeko: Sener, CIE Automotive, Gestamp eta Artech [2011ko abenduaren 13]
 - Cleantech Groupeko "Entrepreneur Showcase Application Process"era enpresa-proiektu eko-berritzaileak aurkezteko eskaera-prozesua enpresei eta ekintzaileei irekitzea
- > PERSEO II. Sariak (Energia Berriztagarrietan Teknologia Berrikuntza). Innobasque lankidetzan ari da Iberdrolarekin entrega-ekitaldia sustatzen Iberdrola Dorreko egoitza berrian [2011ko azaroaren 30]

ERAIKUNTZA JASANGARRIA


- > Inkesta-ondorioen txostena aurkeztea EAEn dagoen eraikuntza jasangarriaren barrutiko produktuen eta zerbitzuen eskaintza-egoerari buruz [2011ko abendua]
- > Building Performance Institute Europe-ekiko lankidetzak (BPIE). Zenbait azterlanen aurkezpenaren parte hartu dugu eta horien artean daude 2050rako Bide-orria eraikuntzan energia-efizientzia hobetzeko
- > EAEko eraikuntza jasangarriaren barrutian profesionala prestatu eta gaitzeko beharren diagnostika lantzea, barruti horretan tarteko diren sektoreetako profesionalen trebatze egokia bermatuko dien ekintza-plan bat burutzeko ahalbidetuko duena (eraikuntza, arkitektoak eta ingeniariak, fabrikatzaileak, hondakin-kudeatzaileak, etab.) eta Eusko Jaurlaritzatik burutzen ari diren Enplegu Planean sar daitekeena 2012 urterako eta ondorengoetarako



- > Europar finantzatze-iturriak bilatzea Eraikuntza Jasangarriko Inbertsiorako Europar Bankuaren bitartez (BEI)

EAE-N EKOBERRIKUNTZA SUSTATZEKO EKINTZAK

- > CArrakasta-kasuak ekoberrikuntzan, Euskadi Ekoberrikuntzako erreferente bezala kokatzeko xedearekin garatuak.
 - II. Prestakuntza Mintegia ekoberrikuntzaren azterlan tematikoa lantzeko metodologia, 3 euskal unibertsitateetako erredaktoreei eta ikertzaileei zuzendua [2011ko urriaren 7]
 - Euskadin hondakin-kudeaketarako eredu berritzaile bat garatu eta inplementatzeko lankidetzak I. Kasuaren Erredakzioa, CIE Automotive, EKONOR eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzarekin
 - Kasu hauek abiaraztea: Eroski (marka propioak eko-diseinua), ZIV (SmartGrids), Fagor (kontsumo-ondasunen ekodiseinua), IDOM (eraikuntza jasangarria) eta ABG Biotech (bioteknologiakiko ekodiseinua)
 - Kasu berri baten identifikazioa: Vitoria-Gasteizko Udala (European Green Capital 2012-ren Mugikortasun Jasangarriaren Plana)
- > Inbertsio pribatua I+G+b berdean: inkesta amaitzea datuak lortzeko
- > Hiri Eko-adimenduna:
 - Partaidetza Bilboko Udalarekin batera,



- hirien berrikuntzako topaketan Bartzelonako Udalarekin [2011ko abenduaren 1]
- Tecnalia, Fundación Metrópoli eta Bilboko Udalarekin lankidetzak, "The Knowledge Revolution Singapur+Bilbao" Jardunaldian [2011ko azaroaren 17]

EMAITZAK

- I. Cleantech Day Euskadin: 100 enpresaren eta nazioarteko 16 inbertsio-funtsen partaidetza [2011ko urriaren 3-4]
- II. Prestakuntza Mintegia ekoberrikuntzako azterlan tematikoa burutzeko metodologiaz [2011ko urriaren 7]
- "Euskadin hondakin-kudeaketako eredu berritzaile bat garatu eta inplementatzea garatzeko lankidetzak" Lehenengo kasua
- Hirietako berrikuntzari buruzko topaketa Bartzelonako Udalarekin [2011ko abenduaren 1]
- Produktuen eta zerbitzuen eskaintza-egoerari buruzko txostena EAEko eraikuntza jasangarriaren barrutian [2011ko abendua]

ALBISTE IZANGO DA

- Eraikuntza Jasangarriko Bide Orria EAEn
- Euskadiren presentziaren kudeaketa Cleantech Forum Europe 2012n: adituen panela, standak, showcasea, erakunde-ordezkaritza eta "business match"
- "Entrepreneur Showcase Application Process" en parte hartuko duten proiektuak identifikatzea [2012ko otsaila]
- Ekoberrikuntzari buruzko txostena
- Arrakasta-kasuak Ekoberrikuntzan

GIZARTE EFIOSASUNGARRIA ETA BIZI KALITATEA


DINAMIKA

Zer da?

Ekintza aldi bereko eta koordinatua 4 jarduera-eremutan (elikadura, zahartze aktibo eta osasungarria, kronikotasuna, eta osasun-teknologiaren sektorearen garapena), osasunaren balio-konstelazioaren parterik handiena aktibatzen duena, eta era esanguratsuan 3 helburu lortzen aurrera egitea ahalbidetzen duena:

- > gehiago eta hobeto bizi
- > balio ekonomikoa sortu ingurunean
- > sistema sozio-osasunezkoaren jasagarritasunari lagundu

INNOBASQUEREN PAPERA

- > Inguruneak sustatu, beraien antolaera publiko eta pribatuak, pertsonak eta erkidegoak, lankide izan daitezen ekimen berritzaileak garatu eta ezartzen elkarlanean
- > Mugen artean eta haietan zehar lan egin osasunaren balio-konstelazioa itxuratzen duten eragile desberdinen artean
- > Ikuspegi desberdinak dituzten eragileak hurbiltzea sustatu, ideia eta planteamendu berriak atzeman eta haiek bizkortzea abiarazteko

ELIKADURA ETA BIZI-OHITURAK

> GOSASUN abiaraztea

GOSASUN mugimendu sozioekonomiko bat da elikaduran, jarduera fisikoa eta emozioen kudeaketan bitzita osasuntsuago sustatzea helburutzat duena.

Gizartean aldakuntza bat gerta dadin ez da bakarrik beharrezko pertsonak aldakuntzekin konprometitzea norbanako bezala, baizik eta ezinbestekoa da gure inguruneak (heziketakoak, lanekoak, udalerrikoak...) inplikatzeko. GOSASUNen bi eratako konpromisoak bilatzen dira.

Mugimendu hau garapen- eta onura-iturri izango da gure ehun ekonomikoan produktu, zerbitzu edo negozio, hobetze lehiakor berriak etab. sortzearen bitartez

2011ko azken hiruhilekoan zehar 2 topaketa egin dira GOSASUN abiarazteko.

- I. Eragileen Konexio Tailerra eta bertan 52 pertsona izan ziren erakunde publiko eta

pribatuak ordezkatzu 3 barrutitan lan egiten dutenak: elikadura, jarduera fisikoa eta emozioen kudeaketa Topaketaren helburua ez zen ideia aurkeztu eta partaideekin kontrastatzea bakarrik izan, baizik eta haien lankidetzat bilatzea osatu eta hobetzeko, eragileen sareak ehuntzen hasteko eta jarraipen-konpromiso bat bilatzeko [2011ko azaroaren 29]

- Aurkezpenean, Bilboko Udala eta Bilbo Alhondigaren lankidetzarekin, 200 pertsona baino gehiago izan ziren. Ekitaldian Lola Elejalde, Innobasqueko Gizarte Efiosasungarriaren dinamikaren Arduradunaren partaidetzarekin; Oihane Agirregoitia, Bilboko Osasuna eta Kontsumoko Zinegotziarekin; Jon Zuazagoitia, Eusko Jaurlaritzako Osasuna eta Kontsumo Saileko Herri Osasuneko Zuzendariordearekin; Txemi Mera, Eroskiko Kanpo Harremanetako Zuzendariarekin; José Antonio Gonzalez, Sycom Trainingeko Sortzaile eta Lehendakaria eta Adimen Emozionalaren Partzuergoko Sustatzailearekin; Bharat Yogacharia, Barre Adimendunaren Eskolako eta gogoeta eta yogako maisuarekin, eta Dionisio Horrillo Frutas Dionikoa parte hartu zuten [Bilbao, 2011ko abenduaren 18]



> Aktibili

Aktibili, -Euskal Jaurlaritzak sustatua- Jarduera Fisikoko Euskal Plana lantzea "Gizarte osoa" aditu-taldearen barruan eta zeinari 3 aldundiak atxiki zaizkion, 3 euskal hiriburuetakoa udalak eta Eudel.



> TAS Programa

Innobasque lankide izan da Alicia Fundazioarekin (www.alicia.cat) TAS Programan, "Zu eta Alizia Osasunaren alde", euskal ikastetxeen partaidetza sustatuz programa honetan, bigarren hezkuntzako elikadura eta jarduera fisikoko ohiturak hobeto ezagutzea helburu duen programa honetan, eta hobetze-estrategiak diseinatu eta landuko dituztenak beraiek izan daitezen lagunduz.

> Osakidetzaren "Ongizate eta osasun-ohiturak berrasmaten Bilbon"

Bilboko Eskualdeko gogoeta estrategikoko lankidetzak. Informazio gehiago: <http://esto-medavidilla.wordpress.com/>




> KATILU

Katilu 2012 estrategia diseinatu eta lantzea, Neiker, Arkautin (Araba) kokaturik dagoen Katilu erkidegoaren lankidetzagunean erabili eta diseinatuko diren dinamikak eta metodologiak identifikatu eta hautatzea. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantza Saileko IKT, Itsasmendikoi, Kalitatea eta Neiker enpresen lankidetzak izan da, Innobasquerekin sinatutako lankidetzahitzarmen baten indarrez.

OSASUN TEKNOLOGIEN SEKTORE GARAPENA

Goierrri eskualdeak bere eskuduntzen azterketari ekin dio, teknologia, aktiboak eta emaitzen konbinaketa ulertzen duelarik eskuduntzaz, eta haien identifikazioa beren kuantifikazioa eta/edo kualifikazioarekin konbinatzearen beharra azpimarratuz, enpresa-desberdintzea errazteko.

Vinnova, Suediako Berrikuntza Agentziarekin, Napoliko Unibertsitatearekin, Danish Technological Institute, Smart-homes (Holanda) harremanak izan dira nazioko eta nazioarteko sare bat sortu eta baliatzeko



ZAHARTZEA

"Euskadi zahartzen" Hitzaldia eta bertan Innobasque SPRIK antolatutako "Zahartze Aktibo eta Osasuntsuaren berrikuntza" jardunaldiaren barruan garaturiko Zahartzeko jardura-lerroak aurkeztu ziren. Ekitaldian bostehunen bat adituk parte hartu zuten biztanleriaren pixkanakako zahartzearen eskaintzen diren negozio- eta aberastasun-aukerei buruzko esperientziak eta iritziak partekatu ziren. [Bilbo, 2011ko abenduaren 2]

KRONIKOTASUNA

Eusko Jaurlaritzako Osasuna eta Kontsumo Sailak Euskadin duen kronikotasunaren erronkari ekiteko Estrategiarekin lerrokatuz, Innobasque lankide izan da Osakidetzarekin eduki praktikoak identifikatzen Osarean Plataformarako- Osakidetzak sarean, eta "osasun hibridoa" kontzeptualizatorako.

EMAITZAK

- GOSASUN abiaraztea: 50 eragile atxiki eta 200 pertsona konprometitu baino gehiago
- Alicia Euskal ikastetxeen partaidetza Alizia Fundazioaren TAS programan
- 6 nodo berri nazioko eta nazioarteko sarean

ALBISTE IZANGO DA

- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Plana
- Proiektu berriak identifikatzea Eusko Jaurlaritzako Osasuna eta Kontsumo Saileko "Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia" ezartzen lankide izateko
- "Lehiakideen arteko lankidetzak baten historia baten arrakastaren gakoak: zazpi sukaldari handiren kasua" kudeaketa zientifikoko Jardunaldi portugaldar-espainiarretan [Vila Real - Portugal, 2012ko otsailaren 1-3]
- Lankidetzak-hitzarmena eskualderako garapen-agentziekin osasun-teknologiaren sektorearen garapenerako



ENPRESAK AZELERATZEA DINAMIKA

ABIARAZITAKO PROIEKTUEN EGOERA

I. urratseko enpresak: azeleratze-prozesua

- > **Hib:** 4 hitzarmen egin dira Ulma Construcción, Ulma Hormigón Polímero, Virtualware eta Lantegi Batuak-ekin.
 - Eraikuntza modularreko prototipo berria aurkeztu da Expoquimia Ferian [Bartzelona, 2011ko azaroa 14-18]
 - Bilbao Labs Summit 2012ekiko atxikimendu-hitzarmena sinatzea, BBVAren Berrikuntza Zentroan [Madril, 2011ko azaroaren 16]
 - Ziurtagiri bat eman zaio Hib-i EIPGko lehen enpresa aitortzen duena Innobasqueko Enpresen Azeleratzaileko hazkuntza-ahalmen handiarekin [Bilbo, 2011ko urriaren 18]




- > **Virtualware:** enpresetan partaidetzak hartzten aritzen den zuzeneko inbertsioko entitatea den Orzarekin kontaktuak eta negoziazioak. Innobasquerekin hitzarmena sinatzea Enpresen Azeleratzailean sartzen den EIPGeko bigarren enpresa bezala [Zamudio, 2011ko abenduaren 13]



Kontraste-taldeak baliozkotutako enpresak

- > **Unicorp:** irabazi-asmorik gabeko elkarte bat sortzea enpresaren xedeari lotua
- > **Kera-Coat:** alde biko kontaktuak hodiaren sektorean eta produktu desberdinen industrializatzeko-prozesua
- > **Documents:** alde biko kontaktuak eragile desberdinekin
- > **Intragestión:** kontrasteko lehen topaketa 16 bertaraturen partaidetzarekin. Alde biko bilkuren hasiera



Prozesuaren hasiera-urratsean dauden enpresak

- > **Art-Panel:** negozio-plana aurkeztu du. Alde biko topaketak Orona bezalako intereseko eragileekin
- > **Dokudea:** kontrasteko taldearen sorrera prestatzea gero lehen topaketa egiteko
- > 7 enpresarekin harremanak izatea Azeleratzaileak sar daitezten: Xramp, Merkopolis, Urban Intelligent, Inge Innova, Grupo Urbegui, Bitek Telecomunicaciones eta Zeinu

EMAITZAK

- Hib-en lankidetzako hitzarmena Ulma Hormigón-Polímero eta Virtualware-rekin
- Ziurtagiria ematea Innobasqueko Enpresaren Azeleratzailearen Zigiluarekin Hib eta Virtualware-ri [2011ko urriaren 18 eta abenduaren 13]
- Bilbao Labs Summit 2012rekiko atxikimendua sinatzea [Madril, 2011ko azaroaren 16]

ALBISTE IZANGO DA

- Barnekuideaketako proiektua aurkeztea Gaiako mikro-eteei
- Baterako sozietate bat abiarazten ari dira Tubacex eta Kera - Coaten artean

LAUGARREN SEKTOREA DINAMIKA

Zer da?

> Dinamika honen helburua enpresa-jarduera xede sozialekin garatzea da, lan globaleko esparru bat eskainiz gaur egun sail horretan ari diren antolaeren ahalmenak indartuko dituen, lan globaleko ekimen berriak abian jartzearekin, eta haien nazioartekotzea sustatuz

ENPRESA ERANTZUNKIZUN SOZIALA: METODOLOGIA ESPARRUAREN DEFINIZIOA

Aurrera doaz metodologia-esparruaren lanak EESeko estrategia bat planifikatzeko, eta gainera baliabideak esleitzen zaizkio Eneko enpresen aldetik hura ezartzeko.

Erreferentzia-esparru hau, izaera berritzailea duena lau euskal erakunderekin kontrastatu da: Izar Tools, YOR S.A., Engranajes Juaristi eta Autobuses Vigiolarekin, eta lehiakortasun jasangarri baterantz aurrera egiten lagunduko du, hiru helbururi erantzuna emanez:

- EAeko Enpresen eta erakundeen erkidegoari erreferentziako esparru bat eskaini enpresek EESean egin duten aurrerapena determinatzeko
- Bitarteko bat eskaini enpresak azter ditzan bere kokamendua eta bere hobetze-aukerak jasangarritasunean
- EESeko erakunde eta sustapen-eragileei jasangarritasunena aurreratutako enpresen kontraste-sistemako eta aitortzako proposamen bat eskaini

EKINTZAIETZA SOZIALA

Sorkidetzatza-prozesuaren txostena amaitu da eta haren helburua enpresa sozial berritzailearen laguntza-eredua definitzea izan da. Txosten horrek jaso egingo ditu aurrekariak, helburuak, kronologia, ekintza garatuak, prozesu- eta betetze-adierazleekin batera.

¿Te gustaría contribuir en el primer **Cuaderno de trabajo Colaborativo** de Innobasque sobre el **Cuarto Sector en la CAPV?**

LAUGARREN SEKTOREA PARTZUERGUA

4. Sektoreko Partzuergoak gaur egun Innobasqueren bazkide-plataformaren parte diren enpresa, zientzia, teknologiko eta gizarteko eragile nagusien partaidetza izango du.

Partzuergo hau 2012ko otsailaren 28an Vitoria-Gasteizko Europa Jauregian egingo den 4. Sektoreko Nazioarteko Mintegian aurkeztuko da.

Hiru euskal unibertsitateekiko (UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea) 4. Sektoreak Euskadin duen egoeraren diagnostia (artearen egoera) erredaktatzeko lankidetzako lana amaitu eta gero. Dokumentu honek, Innobasqueren web-orrian eskura dagoenak, esperientzia berri baten hasiera abian jartzeko aukera eman du "adimen kolektibo" deitzen duguna kontzeptualizazio partekatutako bat aberastu eta sortzea bultzatzeko.



PIRAMIDEAREN OINARRIA

Innobasquek Laugarren Sektorearen Piramidearen Oinarria bere programaren nazioartekotzea aurkeztu zuen "Gehiengoarentzako aukerak: Piramidearen Oinarriarekin negoziak", IBEREMEPRENDE eta EPIC-ek antolatua (Immigrazio eta Lankidetzako Profesionalen Eskola), Madrilgo Erkidegoaren eta Adecco Fundazioaren lankidetzarekin. Ikastaroan 40 ikaslek parte hartu zuten, gehienak etorkinak ekintzaile soslaiakoak. [Madril, 2011ko urriaren 5-6]

EMAITZAK

- "EESaren jardura-lerroa eta EES eta lehiakortasuna Euskadin, Berrikuntza Sozialetik hurbiltze bat" argitalpenaren aurkeztua [Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 29]
- Sorkidetzatza Txostena

ALBISTE IZANGO DA

- 4. Sektorearen Nazioarteko Mintegia [2012ko otsailaren 28]
- Ekintzaitza Sozialaz Open Space Euskadin [2012ko otsaila]
- Gizarte-finantzak: lan-talde bat abiaraztea
- Momentum Project, gizarte-ekintzaitzako finantzazio-tresnaren aurkezpena [Koopera, Bilbo -2012ko urtarrilaren 23]

INGURUNEAK: lankidetzak garatzen

Zer da?

> Berrikuntza pertsonengan dago, eta horiek garatzen dituzten gaitasunak dira gizartearen balio nagusia. Berrikuntza, beraz, prozesu hedatu bat da, enpresetan, mota guztietako erakundeetan, instituzio publiko eta pribatuetan, kulturaren, hirien bizitzan... Gure lanaren atal oinarritzako bat pertsonen (gizartearen) gaitasunak garatzen laguntzea da bultzatzen ari garen Eraldaketa oinarri erreal eta iraunkorrak izan ditzan. Ildo horretatik, izaera desberdineko ekimenak garatzen ditugu aurrez deskribatutako dinamika osatzen dituztenak



OPENIDEIAK

www.openideiak.com lankidetzak eta partaidetzako tresna da. Erkidego honek plataforma dinamiko bat eskaintzen du, Innobasque erakunde, publiko eta pribatuaren eskura ezartzen duena berrikuntza irekia sustatzeko erronka mota guztiei, zeinetan gizarte bezala eta pertsona bezala garapen ekonomiko, soziala eta gizatiarrarekin zerikusia duten ekimenak (ingurumenekoak, enpresakoak, teknologikoak, sozialak, kulturalak) garatu ditzakegun. Erkidegoak aukera ematen du erakunde guztietara irekita dauden berrikuntzekiko proposamenak dinamizatzeko, zeren eta tresna eskuragarri bat baita gure bazkide guztientzat eta ekintza estrategikoaren lerro guztietan hedatzen baita.

Lerro Irekiak

- > Openideiak
- > Adimen Emozionalaren Partzuergoa
- > Hizkuntzen Industria
- > Kudeaketa aurreratuko kasuak
- > Itaca Foroa
- > Esp@ Sarea

Urtebete betetzen dugu SorKidetzan saila hasi genuenetik, sor-kidetzak printzipioarekin burutu diren enpresen esperientziak, ekimenak edo proiektuak jasotzen dituzten elkarriketak.

Badakigu sor-kide izatea ez dela erraza baina bai oinarritzakoa, eta horregatik aitortu nahi ditugu beren esperientzia Openideiak-en bitartez partekatu dituzten pertsona horiek guztiak. Horregatik elkarriketa horiei birpasadaxo bat egingo diegu:

<http://blog.openideiak.com/2011/11/un-ano-de-co-creacion/>

ONGIZATE KOMUNAREN ALDEKO ERRONKAK

Erronka berri 1 hedatu da:

- > **DEUSTU LEHIAKETA EKINTZAILE.** Ekintzailetza Astearen Galdor bezala, Deustu Ekintzaile 2011, Deustuko Unibertsitateko Berrikuntza eta Ekintzailetza Zuzendaritzak lehiaketa bat abiarazi du enpresa-idea hobereana saritzeko. Lehiaketa honen deialdia unibertsitate-erkidegora zuzendurik dago, batez ere, Bilbo eta Donostiako ikasleei. Hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte: berritzaileka izan, enpresa bat sortzea izan helburu, negozio-idea unibertsitatekoak diren pertsonengandik etortzea eta merkaturatu aplikazioa izatea.

HIZKUNTZEN INDUSTRIA

35 pertsonak parte hartu zuten "Hizkuntzaren Industriako Enpresa Jardunaldia 2011" GARAIA Berrikuntza Poloan Langune Elkarrekin antolatua.

Topaketa hau, hizkuntzaren euskal industriaren sektoreko eragile guztien arteko lankidetzak indartzeko egina izan zen, itzulpen-gintza, hizkuntzen irakaskuntza, edukiak eta teknologia barrutiak bere baitan hartuz. [Arrasate, 2011ko abenduaren 11] [GIPUZKOA BERRITZEN]

EMAITZAK

- 215 lan-talde. Openideiak-ek hiruhileko honetan 4.511 pertsona erregistratzen kopurua lortu du.
- 215 lantalde

GOMENDIO-KATEA



Lankidetzaren proiektua sormen berritzaileak gizartearen duen inaktuaren balioa ezartzen duena. Barruti oso askotarikoetako eta bizi-ingurune oso desberdinetan pertsona kezkatuak ezagutzeko eta aitortzeko aukera ematen du. Innobasquek ekimen hau abiaraztea erabaki zuen jarrera berritzailea identifikatu, aitortu eta mobilizatzea eta Pertsonen Sarean txertatzea.

4 maila berri txertatu dira kateetan: Borja Saracho, Miryam Artola, Imanol Apalategui eta Joxean Saez de Okariz.



ZER DA ZURETZAT BERRIKUNTZA?

Borja Saracho: "Berritzaia lehen zegoenarekiko desberdina den eta arreta erakartzen duen zerbait sortzea da". "Zaila da baina zirrarragarria da, eta bidea aurkitzen duzunean errazagoa da berritzaia koptatzea baino".

Miryam Artola: "Beti lotu izan dugu berrikuntza garunarekin, baina beste subjektibotasun batzuk erabiltzean ere datatza". "Historia bestelako era batez kontatzea da".

Imanol Apalategui: "Berritzaia askatasun- eta negozioazio giro bat ingurumenarekin aldatzea da." "Ezinezkoa da berritzaia irudimenik ez baduzu, beste ideia batzuetara zabalik ez bazaude".

Joxean Sáez de Okariz: "Inguruan gertatzen denarekiko atergabe adi egotea da." "Zerbaiten alde arriskatzea".



THE TEN MILLION PROJECT

The Ten Million Project ekimenaren 3º edizioa amaitu da, eta bertan partaidetza handia da azpimarratzekoa. Guztira 36 proiektu aurkeztu ziren, honako lau bloke edo barruti hauetan sailkatu daitezkeenak: sozio-osasuneko (3), gizarte (4), ingurumena (4), marketing eta komunikazio (5), sukaldaria-elikadura (4), energia (5), prestakuntza (29), logistika eta garraioa (6), eta aisia-turismoa-kirora (3).

Aurkeztutako proiektu guztietatik, lehen urrats batean 9 aurrerailkatu ziren eta gero 3 finalistak sailkatu ziren eta hauek izan ziren: KBE, Anateusk eta Suka. Zeinek bere proiektua aurkeztu eta gero sustatzaileen aldetik, epaimahaiak Suka aldarrikatu zuten irabazle.

Tecnalia lider duen proiektu honek Basque Culinary Center-en diseinua, eta Ameztoiren fabrikazioa ditu, eta, azkenik, Arista eta TAK ditu

komunikazioa eta irudiaren sinatzaile. Sukak goi-sukaldaritzako platerak diseinatuko dituen enpresa bihurtzeko bokazioa du eta azken kontsumitzaileari eskaintzeko hark landu ditzan.

Sukak goi-sukaldaritzako platerak diseinatzeko enpresa bihurtzeko bokazioa du. [Donostia, 2011ko azaroaren 29] [GIPUZKOA BERRITZEN]

Informazio gehiago:
www.the10millionproject.com



EMAITZAK

- Sukak irabazi du "The Ten Million Project" saria [Donostia, 2011ko azaroaren 29]
- Hizkuntzaren Industria 2011 txostena aurkeztu da [Arrasate, 2011ko abenduaren 16]

ALBISTE IZANGO DA

- Ikastaro monografikoa nola parte hartu Openideiak-en KZGuneen bitartez [2012ko otsaila]
- Innobasqueren Kasuak: nazioarteko lankidetzaren eta barne-ekintzailetzaren azterlan tematikoak landu eta hedatzea eta LeRoy Merkin, Volvone eta First Lego League Euskadirena ere bai
- Hizkuntzaren Euskal Industriaren Sektorerari buruzko txostenaren jendaurreko aurkezpen [2012ko otsaila]



ADIMEN EMOZIONALAREN PARTZUERGOA (AEP)

Emolaborategia

3 tailer monografiko egin dira guztira 87 pertsona partaiderekin.

- Harremanen kudeaketa, Musika esperientziala eta giza diseinua [2011ko urriaren 20]
- Bizitza eta ongizate-trebetasunak. Ongizate subjektiboaren gurpila [2011ko azaroaren 24]
- Urte ixtea eta aldi berri bat. AEP eta networking [2011ko abenduaren 16]

Gainera beste 2 tailer egin ziren eta haietan 28 pertsonak parte hartu zuten, honako eduki honekin:

- Focus Group "Presentismoa eta enpresa txikien zuzendaritza: Zer irabazten dugu denbora begietatik galduz" eta hori "Enpresa-planteamendu berriak, berdintasuneranzko ibilbide berriak" ikerkuntza-ekintza partaidearen proiektuan hesiturik, Emakunderekin lankidetzarekin [2011ko urriaren 28]
- Tailer berriemailea "Berrikuntza-ekipoak, garapen antolatzailearen tresnak" unibertsitate-enpresa proiektuan parte-hartzea arakatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko BILGUNE programetako aholku-emaile lankideei zuzendua [2011ko azaroaren 16]

e.factory.coop

> Laboratorio Empresas Delfin (LED), ezagutza berria sortzeko egina pertsonengan oinarrituriko kudeaketa eta pertsonengandik eta partaidetzatik eraldaketa antolatzailea eragiteko.

LED ekipoak lankidetzan jarraitzen du Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoarekin, eta lankidetzari berri bat hasi du Osakidetzako Zerbitzu Zentralekin

> Berrikuntza-ekipoak (pertsonak eta antolaera-testuinguruak). 6 antolaera berrikuntza-ekipoak abian jarri dituzte berrikuntza-ekipoak bideratzaile-prestakuntza jaso ondoren. 6 enpresa horiek: Fundación Novia Salcedo, Ingema, Vitoria-Gasteizko Udala, Iparbit, Artez eta Getxo Kirolak dira proiektuko bigarren panela.

Gainera, abenduan beste 7 antolaerak ekin zituzten berrikuntza-ekipoan prestatzeari. Proiektu horrek, UPV/EHuko Psikologia departamenduaren lankidetzarekin, sakondu egiten du prestakuntzaren metodologia eta berrikuntza-ekipoen funtzionamendua

- > Art.e ekipoak "Triziklo Esperientziala" tailer-zikloa diseinatu du eta garatzen ari da Deustuko Unibertsitateko Berrikuntza Soziala eta Ekintzailetzako alorreko lankidetzari
- > Proiektu honetan arte eszenikoak eta batzen dira gaitasun sozioemozionalen garapenarekin

Anfiteatroa

> "Pertsonengan oinarrituriko berrikuntza" Tailerra Deustuko Unibertsitateko Komunikazioko 80 ikaslerekin [Donostia, 2011ko urriaren 11]

> Jardunaldi berri-emailea "Pertsonengandiko berrikuntzaz eta AEPaz" UPV/EHuko Hezkuntza Sozialako ikasle-talde batekin [2011ko abenduaren 2]

> "Nola kudeatu zeure lanbide-geroa" Tailerra 33 pertsonaren partaidetzarekin Ekonomialarien Euskal Kolegioaren egoitzan [Bilbo, 2011ko abenduaren 13]

EMAITZAK

- AEPak dagoeneko baditu 97 antolaera eta 170 pertsona
- AEPren presentzia hazten ari da sare sozialetan era nabarmenean: 3.660 jarraitzaile Facebook-en, eta 441 Linkedinen

ALBISTE IZANGO DA

- "Berrikuntza eta partaidetza" argitalpena

III. Euskadi eraginkorrarekin konpromisoa

I+G+b Sistemaren Nazioartekotzea (INSIDI)

ERA-NET

- > EUREKA PRO-FACTORY PLUS Fabrikazio aurreratuko teknologietan zentratutako partzuergoaren topaketan parte-hartzea, MANUNET II proiektua eta, zehazkiago, haren urteroko deialdia aurkezteko, partaidetza-arrakasta handia izan baita. [2011ko urria 6]
- > MANUNET II programaren aurkezpena "Sinergiak funts europar, nazional eta erregionaletan Horizon 2020an" sailean, Manufuture 2011 Konferentziaren esparruan, manufaktura-sektorea integratzen zentratuan Ekialdeko Europaren eta Mendebaldekoaren artean [Wroclaw - Polonia, 2011ko urriaren 24-25]
- > Bizkaiko Teknologia Parkean ERA-NET deialdien aurkezpen-jardunaldiak Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailarekin eta SPRIrekin batera, 2012an ireki direnena euskal enpresen, ETEena batik bat, partaidetza sustatzeko helburuarekin, I+G+b-ko lankidetzaproiektuen europar- mailan, bai eta aholku praktikoak emateko ere proposamenen arrakastarako. Ekitaldian 115 pertsona izan ziren enpresa, teknologia-zentro, unibertsitateak eta abarretik [Zamudio, 2011ko azaroaren 25]



- > "ERA-NET: Europar-barrutian Berrikuntza Teknologikoari laguntzeko tresna" jardunaldia antolatzea Donostia Sustapenenarekiko lankidetzan, enpresa, teknologia-zentro, kluster eta beste entitate batzuei berri emateko ERA-NET tresnaz eta haren 2012 deialdiez. Gainera, topaketan izan ziren 31 pertsonak sarrera-mailan ezagutu ahal izan

Zer da?

Haren helburua I+G+b-aren ekarpena hobetzea eta kapital ekonomiko/gizatiarraren kudeaketako eraginkortasuna gehitzea da epe laburreko EMAITZEKIN, krisi globaleko ingurunera egokituak. Innobasqueren ekintza estrategikoko hirugarren lerro horretan honako ekintza hauek integratzen dira: I+G+b Sistemaren Nazioartekotzea, ZTBESaren Dinamizatzea, Diplomazia Berritzailea, eta Innocampus.

zuten Europa VII.I+G Esparru Programa, bai eta laguntza-zerbitzuak ere I+G+b-ko europar proiektuetan partaide izateko ere [Talent House - Donostia, 2011ko azaroaren 29]

- > BIO-EUROPE 2011an partaidetza, Industria Bioteknologikoari zuzenduriko gertaldia izan zen Valonia, Austria, Flandes, Alemania eta Finlandiako agentziekin batera erakusketa-guneko stand baten bitartez. Hitzaldiek iraun zuten hiru egunetan, entitate interesatu guztiei berri eman zitzairen EuroTransBio programaz eta nola parte hartu deialdietan. Gainera bazkideka bilatzen interesaturiko entitateen soslaiak agertu ziren bakoitzak zuen proiektu-ideiarako eta Abaguneen Katalogoaren hedapena egin zen Euskadiko BIO sektorean [Düsseldorf - Alemania, 2011ko urriaren 31 eta azaroaren 1-2]
- > MANUNET II 2011an jasotako proiektu-proposamenen nazioarteko ebaluazioa antolatzea eta MANUNET II-ren Zuzendaritza Batzordearen bilkura. 18 herrialdeetako eta europar erregioetako 26 pertsonaren

ERA-NET PROIEKTUA	PROIEKTU AURKEZTUAK	PROIEKTU ONARTUAK
MANUNET	38	10
MATERA	1	0
MNT-ERA.NET	5	1
ETB-PRO	2	1
EURONANOMED	3	0
SMARTGRIDS	4	1
LEAD ERA	8	1
ERNEST	1	1



partaidetzarekin [Karlsruhe - Alemania, 2011ko azaroaren 19-20]

- > Azken bilera honetan, zeinera gonbidatu baitziren partzuergoko kide guztiak, MNTen bigarren urratsean burututako jardueren laburpen bat aurkeztu zen. Innobasque, komunikazio eta hedapeneko lider bezala sustapen-laneko paletan burututako jardueren laburpen bat aurkeztu zuen. Gainera, agentzia guztiak aurkeztu zituzten beren gogoetak MNTen lortutako esperientziak eta ERA-NET berriko geroko partaidetzaz, EEK aurten onartuaz ere hitz egin zen, materialen teknologian eta ingeniarietan eskala makro, mikro eta nanoan (M-ERA.NET) eta Euskadik dagoeneko iragarri du bertan parte hartu eta konprometituko dela. Hasieratik MNT-ERA.NETek 6 deialdi egin ditu I+G+b-rako nazioz gaindiko lankidetzan mikro-eta nano-teknologietan, 104 proiektu

finantzatu dituelarik, haietako 13 euskal partaidetzakoak, %85-90 ETEak direlarik. Beste behin horrek erakusten du ERA-NET eskema ETEei laguntzeko tresna egokia dela, %39ko arrakasta-tasa duena aurkeztutako proiektuak onartzeari dagokionez [Viena, 2011ko abenduaren 13]

- > EuroNanoMed ekimenaren lehen urratsa ixtea Nanomedikuntzako ikerkuntzarako, proiektu horretan Innobasquek eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak parte hartzen dutelarik. 3 urte horietako lehen emaitza 3 urteko lankidetzaren ondoren 15 herrialde eta 3 erregiorekin EuroNano Mede-en baterako 3 deialdi egitea izan da fruitutzat 46 milioi euroko finantzazioa eman dutelarik I+GT (ikerkuntza eta teknologia-garapena) 24 proiektutan, 19 herrialdeetako 126 entitatearen partaidetzarekin. Proiektu horiek askotariko

gai medikoak hartzen dituzte hala nola, minbizia, hantura-gaixotasunak, amiloide gaitzak, gaixotasun kutsakorrek edo begia, belarria, bizkarrezurra eta hezurra bezalako organoen ehuna birsortzea.

EuroNanoMed ERA-NET proiektu bat da zeinen helburu nagusia ikerkuntzaren lehiakortasuna sustatzea baita Nanomedikuntza europar-mailan, ikerkuntzako proiektuak finantzatzearen bidez, lankidetzan I+GT-ko, barruti desberdinetako partaideekin hala nola akademikoekin, osasun-antolara eta industriakoekin, eta batez ere ETEtakoekin.

- > ERNEST Europar Partzuergoaren zortzigarren topaketan parte-hartzea, Turismo Jasangarriari buruz Basquetour-ek antolatuan europar erregio desberdinetako hogeitau ordezkariren partaidetzarekin [2011ko azaroaren 24-25]

ENTERPRISE EUROPE NETWORK SAREA (EEN)

- > Patenteei buruzko tailer aurreratua, EEN euskal nodotik sustatua, zeinean baitago integraturik Innobasque, Patente eta Marken Bulego Espainiarrarekiko (OEPM) lankidetzan, eta jabetza intelektual industrialaren bitartez berrikuntzen babesari buruz ETEen aholku-emaleei eta solaskideei zuzendua. Ikastaro horretan, 20ko posturen kopuru mugatuarekin, alderdi teorikoak eta praktikokoak landu ziren asmakizunak patenteen bitartez babesteaz [Bilbo, 2011ko urriaren 26-27]
- > 18 kontsulta jaso dira eta haietatik 7intereko adierazpen izapidetu dira, gaur ar-



Business Support at Your Doorstep

te haietako bat emankorra izan delarik Partnership Agreement bat (sarearen bitartez kontaktuan jarritako bi entitatearen arteko lankidetzan-hitzarmena) eman duelarik euskal entitate baten eta ingeles baten artean.

EMAITZAK

- MANUNET II programaren aurkezpena Manufature 2011 Konferentzian [Wroclaw - Polonia, 2011ko urriaren 24 eta 25]
- ERA-NET 2012 deialdien aurkezpen-jardunaldiak [2011ko azaroaren 25 eta 29]
- MNT-ERA.NET programa ixtea
- ERNEST Europa Partzuergoaren zortzigarren topaketan parte-hartzea Turismo Jasangarriaz [2011ko azaroaren 24-25]
- Patenteei buruzko tailer aurreratua [2011ko urriaren 26-27]

ALBISTE IZANGO DA

- I+G+b-ko Nazioarteko Proiektuen Kudeaketako Ikastaro Aurreratua, 52 eskola-ordukoa [2012ko otsailaren 3-martxoaren 23]

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen (ZTBES) Dinamizazioa

Haren helburua euskal teknologia-eragileen balio-eskaintza kohesionatu eta optimizatzea da eta euskal ehun produktiboaren garapenera erabakigarritasunez bideratzea. Hartarako, erraztu egiten dugu lotura eskaintza eta eskari teknologikoaren artean zientzia eta teknologiko

estrategia-ekimen berriak sustatuz, Sarearen gaitasunak sozializatzen eta hedatzen lagunduz, ikuspen estrategikoaren ekarpina eginez enpresen eta erakundeen erabaki-hartzeari, eskaintzaren kohesioari lagunduz eragileen arteko lankidetzaren bitarte zeta, hitz batean, eskaintza

teknologikoa gure ekonomiaren behar hazkor eta aldakorretara hurbilduz.

Gainera, lan jarraitua egiten dugu zientzia eta teknologiko bokazio sustatzen Iñaki Goenaga Teknologia Zentroen Fundazioak kudeatutako beken eta laguntzen programa zabal baten bitartez.

Talentua sortzea Euskadin

Urrian Iñaki Goenaga Fundazioak 2 milioi euroko balio zuten beka eman zizkien 32 gazteri beren prestakuntza zientifikoa eta teknologikoa zabal zezaten, hartarako ZTBESan txertatuz, zehatz esateko honako zentro hauetan: Azti, CEIT, Elhuyar, Fundación Tecnalia Research & Innovation, Gaiker, Ikerlan eta Tekniker.

Gainera, bekadun berriei Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sistemara ongi etorri egiteko, Beka Ematearen usadiozko ekitaldia burutu zen Teknologiaren Interpretazio Zentroan - BTEK, Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean, haren instalazioetarako bisita gidatu bat eginez. Gertaldian honako hauek parte hartu zuten: Edorta Larrauri, Eusko Jaurlaritzako Teknologia Zuzendariak; Begoña Ochoa, Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikaren Zuzendariak eta Alejandro Bengoa, Iñaki Goenaga Fundazioko Lehendakariak. [2011ko azaroaren 29]



Datu garrantzitsu batzuk:

- Deialdia egin duen beka eskarien ratioa 3,56ra igo da 2010eko 2,40ren aldean

- Laguntza horien pertsona onuradunen %47 emakumeak dira

- Bekadun berrien %87,5 EAĒkoak dira, gainerako %6,25 gainerako autonomia-erkidegoetakoak eta %6,25 atzeritarrak

- Beka-deialdi honetan nabarmentzekoa da Euskal Herriko unibertsitateekin lankidetzan estuan egindako lana beken edukiak eskaintako ikasketa berriein egokitzeko



EMAITZAK

- 2 M€ doktorego-bekatan ZTBESko zentroetan garatzekoak
- 32 ikertzaile berri ZTBESen txertatuak

ALBISTE IZANGO DA

- 2012 Laguntza Programa Berriak korporazio teknologikoekin eta Euskal Herriko unibertsitateekin lankidetzan

Diplomazia Berritzailea

ENCUENTROS:

- >> [Zamudio, 2011ko urriaren 20] **Izaskun Bilbao**
Europarlamentarioaren bisita planteamenduak, iritziak eta aurrerapenak partekatzeko asmoarekin Innobasque berrikuntza-barrutian egiten ari den lanaz. Lehen topaketa honen ondoren, aurreikusita dago esperientziak trukatzeko jarraitzea geroko proiektu baterakoak bultzatu ahal izateko



Zer da?

Gure nazioarteko kokamenduan aurrera egiteko programa errealitate berritzaile bezala, gure erakundeak beren nazioartekotzean laguntzeko eta nazioarteko nodo eragileenekin konektatzeko.



- >> **CIC Marguneren Batzorde Aholku-emailearen** urteroko bilkura, zeinean aztertu baitziren haren ikerkuntza estrategikoko jarduerak ETORTEK programaren esparruan. Halaber, bilkurak kontraste bat egiteko balio izan zuen artearen nazioarteko egoerako informazioarekin fabrikazio aurreratuaren barrutian aipatuko Batzordekideek eskuratuta, nazioartean Manufacturing-eko pertsona garrantzitsuek eraturik baitzegoen [Zamudio, 2011ko azaroaren 17]

- >> **Juan Luis Kleinen** bisita, Crisesen zuzendari (Kanadako Berrikuntza Sozialei buruzko Ikerketa Zentroa) eta Québec-eko Unibertsitateko, munduan erreferentziako zentroa deneko irakaslea berrikuntza sozialean. Bisita horren esparruan, lankidetzahitzarmen bat sinatu zen Deustuko, Montrealgo unibertsitateen eta Innobasqueren izaera ofizialez hornitzeko berrikuntza sozialeko eta ekonomia sozialeko gaian hiru erakunde hauen artean dagoen lankidetzari, ikerketa-proiektuak, irakasle-trukea, ikasleentzako egonaldiak, baterako argitalpenak, eta esperientzien trukea [Zamudio, 2011ko urria 27]



PARTAIDETZA:

- >> Adineko pertsonen Artapenerako Sinposioa, **Foro Nagusia 2011**ren esparruan Orue Fundazioak antolatua "Azkeneraino Zaintzen" izenburupean [BEC - Barakaldo, 2011ko urriaren 20-21]
- >> Nazioartekotzeari buruzko Jardunaldia Elkano International Marketing-ek antolatua, zeinean aurkeztu baitziren Nazioartekotzearen i-Taldearen lanaren ondorioak "**Arrakastaren faktore gakoak identifikatzea enpresa multilokalizatuen kudeaketan**" gaiari buruz [Donostia, 2011ko azaroaren 10]
- >> Mahai-ingurua "**Berrikuntza ekonomia globalizatuen merkatuan**" gaiaz Euskadiko I+G+b-az IX. Ikastaroaren esparruan, Jesús M^a de Leizaola Fundazioak antolatua [Bilbao, 2011ko azaroaren 15]
- >> Nazioartekotzeari buruzko Jardunaldia Elkano International Marketing-ek antolatua, zeinean aurkeztu baitziren Nazioartekotzearen i-Taldearen lanaren ondorioak "Arrakastaren faktore gakoak identifikatzea enpresa multilokalizatuen kudeaketan" gaiari buruz [Donostia, 2011ko azaroaren 10]
- >> Marshall Memorial Fellowship Programako epai-mahaia The German Marshall Fund of the United States-ekoa, Fellow espainiarrak hautatu dituen, zeinek parte hartuko baitute lidergo-programa horretan 2012an [Bilbo, 2011ko azaroaren 17]
- >> Balio-sarien epaimahaia "**Gazte Role Model Saria**" Begoñazpi Ikastolari [Bilbo, 2011ko abenduaren 21-22]
- >> ITPeren Berrikuntza Sariko epaimahaia
- >> Europar mintegiaren koordinazioa: "Europa eta garapenaren erronkak: milurtekoko garapen-helburuez harago", Demokrata Europarrak Institutuak eta Sabino Arana Fundazioak antolatua, 30 partaide bertaratu zirelarik. Topaketa honen helburu nagusia milurtekoaren garapen-helburuei buruzko debata eguneratzea izan zen (egoera, ebaluazioa eta kritika) eta proposamen zehatzeko pakete bat formulatzea EBko esparrura eraman daitekeena [2011ko azaroaren 17-18]



INNOCampusa

Unibertsitatearen eta merkatuaren arteko lankidetzaren sustatzen duen jardura, Innobasquek planifikaturik ditu lankidetzaren hitzarmenak euskal

unibertsitate-gunean, graduondoko ikasleek praktikak egin ditzaten Innobasquek proiektuak sendotuz doazen heinean.

ALBISTE IZANGO DA

- Kudeaketari buruzko eskolak ematea Euskarri Teknologikoa eta IKTen Aplikazioarekin Berrikuntza Masterreko eta Gaitasun-Garapeneko prozesuetan Deustuko Unibertsitateko Hezkuntza Nagusian [2012ko urtarrilaren 23-24]
- Eskolak ematea Deustuko Unibertsitateko Segurtasun-masterreko Berrikuntza eta Kalitateari buruzko moduluan [2012ko martxoa]


EMAITZAK

- Azken hiru hileko honetan bi pertsona sartu dira Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean bere proiektu akademikoko praktikak egiteko. Sarrera horiekin 12 dira 2011 urtean zehar Innobasquek praktikak egin dituzten pertsonak, 3 unibertsitateetatik (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) eta BBK Gaztelanbidetik datozenak. Lankidetzaren helburua unibertsitatea enpresara hurbiltzea da eta gazteei aukera ematea lan-munduarekin eta berrikuntzarekin harremanetan sar daitezten eta era praktikoa eta azeleratua Garate ditzaten bakoitzak bere ikaskuntzan lortutako ezagutzak. Helburu horri laguntzen jarraitu nahi dugu 2012 urtean.

IV. Berrikuntzaren Sozializazioa

Innobasqueko Kanalak

- **Basque Innopolis hautzaile:** fitxa dibulgetzaile tematikoa Innobasqueren aurkezpenetako gaiak sakontzeko
- **Must BIP:** Innobasqueren asteroko buletin elektronikoa
- **Basque Innopolis:** hileroko berrikuntza-magazinea, Innobasqueren Astarteeri lotua, basqueinnopolis.com-en eskura
- **Innobasqueren Astarteak:** hileroko deialdia berrikuntzaren protagonistei foro dibulgetzaile eta ireki batean, euskal berrikuntza pertsonen, erakundeen eta komunikabideen begiradapean kokatzeko
- **Innobasque 2.0:** Innobasqueren webguneak, blogak eta kanalak Youtube, Flickr, Facebook, LinkedIn, SlideShare, Issuu eta Delicious-en, berrikuntzako eduki garrantzitsuenak hedatu eta gibizatzen dituzte
- **Argitalpenak:** Innobasqueren lerro editoriala eskura webgune korporatiboan



Zer da?

Berrikuntza sozializatzea Eraldaketaren beharra ereiten jarraitzea da euskal gizartearen. Berrikuntza dibulgetzea ibilbide luzeko lana da, ezinbestekoa Innobasque Sareko eragileak burutzen ari diren lana ezagutua eta aitortua izan dadin, nola barrurantz hala kanporantz.

LANKIDETZA DOKUMENTUAK

Lankidetzak dokumentuak adimen kolektiboko esperientzia berri bat dira, Innobasquetik abian jartzen duguna, gizartearen ekarpenekin lantzen ari garen dokumentu bakoitza aberasteko.

Abenduaren 1etik eta urtarrilaren 27 arte Eneko Laugarren Sektorerari buruzko Innobasqueren lankidetzak laneko lehen koadernoan ekarpenak egitera gonbidatzen zaitugu. Google Docsen plataformaren bitartez zeure ideiak partekatu ahal izango dituzu dokumentu honi buruz, Innobasqueko Laugarren Sektorerako ekipoak jasoko dituen iruzkinak eta ekarpenak helaraziz.

Zerbait ahaztu al dugu? Ba al da gai honekin zerikusia duen norbait eta zure ustez aipatu behar duguna? Beti bezala irrikatzen gaude zure iritzia jakiteko.

TOPAGUNEAREN WEB BERRIA

Dagoeneko abian da GB Topagunet, Gipuzkoa Berritzeneko Topagunearen web berria, lan berritzailearen gune bat sortzen erreferente bat izateko asmoarekin. Orrialdea halako moldez egituraturik dago, non pertsona guztiek sakonago ezagutu dezaketen gunearen proiektuaren historia, bertan eskaintzen den eta showroom kontzeptua.

Topagunea, Gipuzkoa Berritzen sarearen topagunea, showroom kontzeptuan oinarritzen da hain zuzen ere, eta horrek aukera ematen die laneko altzariekin eta tresnekin zerikusia duten erakunde guztiei gure bulegoetako garapen berriak erakutsi eta esperimentatu ahal izatea.

Informazio gehiago: <http://gbtopagunet.com/>



FIRST LEGO LEAGUE EUSKADI: BERRIKUNTZA ESKOLA

9 eta 16 urte arteko 350 gazte parte hartu zuten FLL Euskadiren hirugarren edizioan. Harritu egin zituzten Derioko Euskaltelen egoitzan bildu ziren 1.500 pertsona baino gehiago aurtengo erronkari irtenbide berritzaileak eskaintzeko erakutsi zuten gaitasunarengatik: elikadura-segurtasuna edo "food factor".

2012ko martxoan egingo den espainiar finalerako sailkatutako hiru ekipoek frogatu dute talderik osatuena direla torneoaren lau barrutietan: zientzia-proiektua, robotaren diseinua eta programazioa, roboten lehiaketa eta balioak. Hiru ekipoak hemengoak dira: Leioako Gaztelueta Ikastetxekoa (D-Team), Donostiako Axular Lizeokoa (Overclock Axular) eta Andoaingo Berrozpe La Sallekoa (LSBideluze).

Proiektu berritzaile bat da, non uztartzen diren ikerkuntza eta berrikuntza, enpresa eta hezkuntza eta modu erabakigarrian laguntzen duena teknologia zentroetatik eta unibertsitatetik ezagutza transferitzen enpresara. Hori argi eta garbi geratu da Neiker-Tecnalia, Gaiker-IK4, Azti-Tecnalia, Ausolan eta UPV/EHUko Farmazia Fakultateak urrian FLL ekipoei eman dieten 60 ordu baino gehiagoko prestakuntza-programarekin. Gainera, Innobasquek robotika- eta programazio- eskolak eman ditu irakasleei berei eta antolakuntzako prestakuntza-rol bakoitzean aritzen diren 100 baino gehiagori: arbitro, epaile, laguntzaile eta abarri.

FLL Euskadi erreferentzia bat da 18 torneoak antolatzen dituzten Estatuko gainerako

entitateentzat. Joan den urriaren 27 eta 28an aurkeztu zen FLL Euskadi praktika onaren eredu gisa FLLko erregio-bazkideen aurrean. Gainera, FLL Euskadi burutzean, Girona, Tarragona eta Asturiasko torneoetako behatzaileek hurbiletik jarraitu zuten torneoaren garabidea.

Martxoan Iruñeak jasoko du Bilboren lekukoa, espainiar finalari abegi eginez. Bertan ezagutuko dira apirilean Estatu Batuetara joango diren ekipoen izenak World Festivalen lehiatzerara, eta ekainean Alemaniara European Open Championship-en parte hartzerara. Euskadik badu esperientzia barruti horretan, izan ere urtero izan da euskal ordezkaritza nazioarteko torneoetan. [2011ko abenduaren 3]

MINUTU BAT BERRIKUNTZARAKO

Innobasquek izaera eta tamaina desberdineko 79 erakunde mobilizatu zituen "minutu bat berrikuntzarako" ekimenaren inguruan. Lankidetzaren berrikuntzarako ekimen bat da eta bertan entitateei adorea eman zitzaien berrikuntza bat aktibatzerara epe laburrean ekintza eta emaitza zehatzak izatera.

170 minutu edo ekintza egin ziren eta horiek 8.523 ideia eragin dituzte, gure erakundearen egunean-egunean aurre egiten dieten erronkei soluzioak ekarri.

Innobasquek bat egin zuen Bilboko Erriberako Merkatuan Bilbao Dendak eszeneratu zuen minutuarekin. Hartan parte hartzeko aski zen ideia egingarriak pentsatzea "Bilboko merkataritza hobetu nahi dugu zuzetaz. Emaguzu ideia bat" erronkari erantzuna emateko eta arrosa koloreko post it batea hura ezartzea.

Innobasquek ex professo diseinatu zuen berrikuntza-metodologia ireki erraz bat

erakunde partaide guztietan emaitzetera, erantzunetara, ekintzatarara bideratutako berrikuntzaren kultura bat ernarazteko. Azaroaren 10ean metodologia hori 50 eragile baino gehiagorik eskuratu zitzaion 2 orduko prestakuntza-saio bate bitartez. Gainera, proiektuan sortutako dokumentazio guztia eskura dago unminutoparalainnovacion.com web-orrian. Sare sozialen eta #1min4inno hastag-aren bitartez prozesuaren igarotzean monitorizatu da erakunde batean baino gehiagotan.

Ekimena nazioartekotatu ere egin da. Landa eta Itsas Ingurumeneko Ministerioi Industria- eta Berrikuntza-Sustapeneko Zuzendariordetzak parte hartu zuen proiektuan eta asmoa du ekimena egun bakarreko soilik izan ez dadin baizik eta denboran zehar egin dadin, izan ere modu atseginean tresna batzuk txertatzeko aukera ematen du. Izatez, Nekazaritzako Elikagaien Nazioarteko



Batzordeak (NENB) NAZIOARTEKO MINUTU BAT BERRIKUNTZARAKO ekimenean parte hartzerara gonbidatu zituen sektoreko erakunde profesional eta enpresa guztiak.

Ekintza hau azaroan egin zen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astearren barruan kokaturik dago eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismoaren Saiaren eta FECYT-en (Zientzia eta Teknologiarako Espainiar Fundazioa) laguntza du. [2011ko azaroaren 22]

“EUSKAL HIRIRUNTZ? LURRALDE-BENCHMARKING KONPARATUA GIZARTE BERRIKUNTZATIK” JARDUNALDIA

Kooperaren egoitzan egin den ekitaldi honetan, Igor Calzada doktoreak baieztatu zuen euskal errealitatea modu erabat berezkoan lurralde-gizarte-ekonomia-kulturako gune berri baterantz doala, funtsean berriki hiri-erregio bezala aztertzen ari diren, edo berdin dena Euskal Hirirantz, horrek berekin dakarren eraldatze gizarte, enpresa eta erakunde-ko guztiarekin. Euskal Hiria herrixka globalean bere lurraldea, bere sareak, bere gobernantza, bere estrategiak eta bere kokamendua ulertu eta kudeatzeko modu bat bezala.

Jardunaldian Euskal Hiriaren kasua aurkeztu zen bi hirirekin konparatuz, zeinek adierazten baitituzte hiri-erregio aurreratuen praktika onen kasu paradigmaticoak, eta zeinak egileak hautatu baititu dituzten antzekotasunengatik egitura demografiko-sozial-ekonomikoan euskal hiriarekin.

- Portland (Oregon-USA): hiri-erregio jasangarri eta sortzailea
- Dublin (Irlanda): hiri-erregio konektatu eta sortzailea

Ekitaldian, Igor Calzada, argitalpenaren egileak, eta Mondragon Unibertsitateko eta Nevada (Estatu batuak) Euskal Ikasketa Zentroko Irakasle eta Ikertzaileak eta Luis M^o Ullibarri, Innobasqueko Gizarte Berrikuntzako Zuzendari nagusiak esku hartu zuten, “Euskal



Hiriruntz? Lurralde-benchmarking konparatua Gizarte Berrikuntzatik” lan-koadernoak aurkeztuz, non islatzen baita “Euskal Hiriruntz? Lurralde-benchmarking konparatua Gizarte

Berrikuntzatik” liburuaren edukiaren atal bat Igor Calzadak landu eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak editatua [Bilbo, 2011ko azaroaren 25]

ZERBITZU ROBOTIKAKO TAILERRA

Innobasquek eta Robotikako Espainiar Elkarteak (AER-ATP) tailer bat antolatu zuten joan den abenduan European Robotics Week-en esparruan robotika-zerbitzuko tailer bat tokiko industriari barruti horren inguruan irekitzen den

ahalmen berritzailea eta negoziokoa. Teknologia berri horrek enpresa-aren lehiakortasunaren hobetze funtsezko bat ez ezik osasuna eta hezkuntza bezalako barruti sozialetan gero eta handiagoak diren beharrei kontu egitea

ahalbide-tuko du.

Zerbitzu-robotika era erabakigarrian ari da sartzen gure bizitzetan. Gaur egun arte robotikaren protagonismo hori oso era garrantzitsuan zegoen industrian, orain pixkanaka robotika lanbide-, etxe-, eta aisialdian gero eta toki nabarmenagoa hartzen ari da, eta ondorioz, gizarte modernoaren garapenean. Hori adierazten dute Robotikako Nazioarteko Federazioak ematen dituen zifrek, 14.000 unitate inguru salduak lanbide-robotikan eta 2.000.000 unitate robotika pertsonal eta etxerakoan, datozen urteetako aurreikuspenek gehitze-ehuneko oso ohargarriak ageri dituztelarik.

Hala konstatatu zuten tailerlean parte hartu zuten nazio- eta nazioarteko adituek, zeinen artean nabarmentzekoak diren Bruno Siciliano de la Universidad de Napoli-ko Unibertsitatekoak, Claus Risager, Danish Technological Institute-koak, Urko Esnaola, Jon Agirre eta Joseba Jauregizar, Tecnaliakoak, Luis Basañez, Kataluniako Unibertsitate Politekniko-koak, Luis Montano Zaragozako Unibertsitate-koak, Oriol Torras PAL Robotics-ekoak, Ander Ansuategui, Tekniker-ekoak, Celestino Alvarez, Adele Robotics-ekoak eta Toni Ferraté Ro-robotikoak.



Innobasqueko Astearteak

Enpresak azeleratzea: nola bihurtu presentzia globaleko enpresa berritzaile

Gaurko ingurune aldakor eta globalizatuan, gero eta gehiago, herrialdeak eta erregioak beharturik aurkitzen dira bere enpresa-ehunaren lehiakortasuna gehitzea ahalbidetzen dieten formulak bilatzera, hartara produktibitatea, hazkuntza ekonomikoa, eta enplegua sortzea segurtatuz. Lehiakortasuna hobetzeko bide horretan hil-edo-biziko garrantzia du enpresen erantzun-abiadurak. Lehiatzeko azeleratu egin behar da, eta azeleratzea berritzea da

“Enpresak azeleratzea: nola bihurtu presentzia globaleko enpresa berritzaile” Jardunaldian, zeinera 120 pertsona joan baitziren, Innobasquek Enpresak Azeleratzearen dinamika aurkeztu zuen, zeinekin indartu nahi baitu dagoeneko

eraturik dauden enpresak haztea, izaera berritzailekoak, nazioartekotutak eta hazkuntza lasterrekoak izan nahi badute.

Lagin bezala prozesu horretan murgilduriko 2 kasu praktikoa erakutsi zituzten: HiB, eta Doo Documents, bakoitzaren sustatzaileek ordezkatutak, Adelmo Antelo eta Carlos Moro. Gainera, honako hauek ere parte hartu zuten: Juan Rosas Innovación Bankinter Fundazioko Zuzendariak; Juan Castro, SPRI Taldeko Berrikuntza eta Informazio Gizarteko Zuzendariak; Javier Gofii, Commercial and Marketing Director Cidetec-IK4koa; eta Ignacio Lacunza, Gaizka Zulaika, José María Villate eta Guillermo Ulacia, Innobasqueko Enpresa Azeleratzearen Dinamikako Arduraduna, Inbertsio Zuzendaria, Zuzendari Nagusia eta Lehendakaria, hurrenez hurren.

Gainera, Idomen lankidetzarekin antolatutako ekitaldian HiB izan Zen lehen enpresa Innobasqueren Enpresen Azeleratzailearen zigilua hartzen, zeinek ziurtatzen baitu presentzia globaleko enpresa berritzaile gisa. Horrek esan nahi du baduela gutxienez bere salmenten %25 duela hiru urte merkatuan sartutako produktuetatik etortzekoa; bere salmenten %25 gutxienez esportatzekoa eta bere langileria %20 baino gehiago gehitzekoa hiru urtetan. Hartara, HiB enpresen azeleratzailean sartzen da prozesuan lagunduko duten Innobasqueren eta haren aditu-sare osoaren eskutik. Haren helburua 30 milioi euro fakturatzea da datozen bost urteetan, hau da, bere fakturazioa hamarrez biderkatzea. [Bilbo, 2011ko urriaren 18]



Enpresa-erantzukizun soziala eta berrikuntza, gakoak garapen ekonomiko eta sozialerako

Enpresen arrakasta dagoeneko ez dago soilik epe laburrera mozkinak gehitze-estrategiaren baitan baizik eta Enpresa Erantzukizun Soziala (EES) sustatzean, jarrera, enpresa- eta herrialde-ikuspen bezala ulerturik. Esa apustu bat da eredu ekonomiko berritzailea, guztion ongizatea segurtatuko duena desberdina izan dadin, erakundeen interes-talde desberdinen inpaktuak, interesak eta itxaropenak aitortuz. EES mugimendu geldo bat ere bada, baina iraunkor eta jarraitua, enpresen eta erakundeen



kudeatze-moduan sartzen dena, haientzat apustu estrategiko bat izatea eragiten duena

Innobasquek, Laugarren Sektorearen bere dinamika eraldatzailatik, epe luzean erakundeen lehiakortasun- eta jasangarritasun-palanka bat bezala bistaritzen du EESa, eta hala jarri Zen agerian joan den azaroan egindako ekitaldian Vitoria-Gasteizen, zeinean parte hartu baitzuten honako hauek Felipe Yarritu, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozial eta Enpresa Erantzukizuneko Zuzendariak; Jagoba Gómez, Arabako Foru Aldundiko Sustapen Sozialeko Zuzendariak; Esther Unceta-Barrenechea, San Prudencio Lan Fundazioko Kudeatzaileak; Isaac Ruiz, Gamesako EESko Zuzendariak; Jorge Berezo, Bizkaiko Foru Aldundiko Xertatuko Arduradunak; Joseba Amondarain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerbitzuburuak; Jesús Murga, Izaiteko Lehendakariak; Aitor Pérez de San Roman, Urkideko Zuzendariak; Emilio Calvo Iriarte, Mugarik Gabeko Ekonomialeariako EESeko Arduradunak; Iker Atxa, Pablo Angulo eta Luis M^a Ullibarri, Innobasqueko

Proiektuburua, Programa-zuzendaria eta

Berrikuntza Sozialeko Zuzendari Nagusia, hurrenez hurren.

Jardunaldian 30 pertsona izan ziren eta "EES eta lehiakortasuna Euskadin. Hurbiltze bat berrikuntza sozialetik"


Innobasquek landutako argitalpena aurkezteko gune bezala balio izan zuen, 50 erakunde eta enpresa baino gehiagoren lankidetzari esker, bai eta EESeko i-Taldeko kideei esker ere. [Vitoria-Gasteiz, azaroaren 29]

EMAITZAK

- 989 inpaktu medioetan hiruhilekoan. 2011kan zehar metaturiko balioa (publizitate-baliokidetzaren arabera) 8,5 milioi eurokoa da
- Hazten jarraitzen dugu sare sozialetan: Innobasquek 4.500 jarraitzaile baino gehiago ditu Twitterren
- Gipuzkoa Berritzen-eko Topagunearen web-orri berria abiarazi da
- FLL Euskadi Torneoa 34 ekiporekin eta 350 gazte partaiderekin [Euskaltel - Derio, 2011ko abenduaren 3]
- FLL Euskadiren aurkezpena erregio-bazkideentzako prestakuntza nazionalako saioetan praktika onaren eredu gisara [Barcelona, 2011ko urriaren 26-27]
- Minutu bat berrikuntzarako, 79 erakunderen partaidetzarekin, 170 minutu egitea eta 8.523 ideia berritzaile jasoak [2011ko azaroaren 22]

ALBISTE IZANGO DA

- INNOBASQUEREN ASTEARTEA:
 - Urtarrila: Lanbide Zerbitzu Aurreratuen Enpresa Sarea [2012ko urtarrilaren 31]
 - Otsaila: Laugarren Sektoreari buruzko Nazioarteko Mintegia [2012ko otsailaren 28]
 - Martxo: Gipuzkoa Berritzen [2012ko martxoaren 20]
- "Minutu bat berrikuntzarako" argitalpena
- FLL:
 - FLL Espainiar Finala [Iruñea, 2012ko martxoaren 10-11]
 - FLL Euskadi kasuaren aurkezpena
 - FLL Euskadiren ebaluazio-azterlana
- II. Global Innovation Day



Eranskinak

“Berrikuntza ez da burbuila batean bizi”

Bada uste duenik ez dela galderarik jaurti behar airera erantzuna jakin ezean, eta ezkutatu egin ohi ditugu galdera horiek, inoiz izan ez balira bezala, baina bada egun bat malguki batek eraginda bezala aktibatzen direna, geldiezin azaleratzen dira. Gaur itaun horietako bat argira ekartzera ausartuko naiz.

Ekonomian adituek diote gure herrialdean beharrezkoa dela ia BPGaren %2ko hazkuntza bat enplegua sortzeko. Ingurunearen baldintzek ez digute uzten %2ko hazkuntza hori, berreskuratze irrikatu hori lortzea, eta ondorioz, badirudi kondenatuak gaudela enplegu-gabezia handiko zigor luze bat pairatzera. Baina, egia ote da ezin dezakegula ezer egin? Eta garrantzitsuagoa dena oraindik, jasan al dezakegun enplegu-gabezia hori? Egoera haztaezin bat bezala onartu behar al dugu?

Beraz, desafio egin nahiko nioke abiapuntu baliabide baldintzari, berrikuntzan baliabide garrantzitsua den batera, auzitan jartzera joz. Nirekin lan egin dutenek badakite desafioei ekiteko nire moduaren parte bat dela. Gainera “zailtasun” hitza entzuten dudanean “aukera” bezala aditzen dudala, beraz, zergatik ez aldatu premisa hori?

Zailtasunak ezin gaitzake etorkor bihurtu. Eta batez ere uko egiten diot premisa onartzeari gairik ez duen esperientziak ezagutu eta gero, bizirik irauteko enpresa askok asmatu behar izan dituzten eta oraindik behar dituzten, edo itxuraz ezinezkoak diren baldintzetatik sortuak direnak erakutsi dituztenak. Duela gutxi Innobasquek lan-koaderno bat aurkeztu zuen kasu horietako batzuk aipatzen dituzten enpresa sozialei buruz. Bistan dago erakunde berritzaileei buruz ari garela, ideiak bezeroarentzat balio bihurtzen dituztenez, eta halaber erakundeentzat berentzat ere balioa



Guillermo Ulacia Innobasqueko Lehendakaria - El País, 2011ko urriaren 11

sortzen dutenez. Zeren ez baitira ideia distiratsuen jabe diren enpresak.

Nahiz eta ideia ugari izan, bezeroari ez bazaio baliorik ematen emaitzarik, hau da, berrikuntzarik ez da izango. Ideiatik berrikuntzarako jauzi horrek prozesu estrategiko bat eskatzen du. Eta horrek liderrak eskatzen ditu, erronkak beren gain hartzen dituzten, beren osagai bihurtzen dituzte pasiodun pertsonak. Berriki utzi gaitu Steve Jobsek, berritzaile bat izan zen zalantzarik gabe teknologia pertsonen hurbiltzen asmatu zuena. Teknologiaren planteamendu "adiskidekor" horri esker, diseinu-dosi handien laguntzarekin, Apple nazioarteko enpresa lider bat da (2011n haren hazkuntza %90ekotzat jotzen da gaur arte). Desagertzeko zorian egon zen enpresa bat, bere burua berrasmatu behar izan zuena, eta emaitzak lortzen, berritzen ikasi behar izan zuena. Zeren berrikuntza ez baita burbuila batean bizi. Ideiekin bakarrik ez dugu ezer egingo horiek praktikara eraman ezean. Errealitate hori merkatura iristen denean, funtzionatzen badu, berrikuntza bat izango da. Espiritu ekintzaile batez ari gara, eskuetan dugun enplegu-iturriaz.

Espiritu horrek berorrek atzeman du Europa Batzordea eta hala nabari da Horizon 2020ren programa-proposamenean, zeinak onartuz gero 2014tik aurrera Ikerkuntza eta Garapenerako VII. Esparru programa ordeztuko baitu.

Europa Batzordearen I+G+b-rako finantza-beso berria, 2014-2020 aldirako 80.000M euroko aurrekontu-aurreikuspen batekin, orain arte ikerkuntza eta garapena zenetik hago doa, intentsitate handiagok berrikuntza estaliz eta merkaturanzko norabidea markatuz, bere jardura batez ere eteetarantz eta ekintzaileetarantz bideratuz.

Horizon 2020etik ikerkuntza berrikuntzaren motor bezala interpretatzen

da. Enpresek, eta batik bat eteek eta ekintzaileek, berrikuntzarako atea irekitzen duten ezagutza behar dute. Horrek konexioak gehitzea eskatuko du, eta bi noranzkotan areagotzea, ikerkuntzatik enpresara eta enpresatik ikerkuntzara. Berrikuntza-motor bezala interpretatzen da ikerkuntza.

Hori guztia ikaskuntza adimendun bat (smart entrepreneurship), sustatzeko, erronketara irekita egongo dena, eta lankidetzan aritzeko gai izango dena, barruan eta kanpoan. Arrazoi bat baino gehiagorengatik:

- Produktibitatea hobetzea behar dugu bai gure ongizate-maila eta bai gure estaldura sozialaren estandarrak mantentzeko, biztanleria gero eta zahartuago bat izango duen datorren geure gero hurbilerako, beraz lanean pertsona gutxiago izango dituen baterako. (Immigrazio enplegarri edo enplegatzaile handiagoa izan ezik behintzat)
- Geure pertsonen trebetasunak eta gaitasunak gehitu, garatu eta baliatu behar ditugu balio erantsia gehitzeko, ekonomia lehiakor (eta gero eta berritzaileago) baten barruan.
- Teknologia gehiago integratu behar dugu ekoizpen-prozesuetan, eta eskala guztietan integratu hura eraginkortasunez. Baldin eta robotika faktore gakoa bada gure enpresen lehiakortasunerako automozioa edo kirurgia bezalako sektoreetan, baliabide horiek hedatu egin behar ditugu zerbitzu-sektorerara, eta eteetara bereziki.
- Berrikuntza ez-teknologikoa hedatu behar dugu, berrikuntza ezkutukoa ere deitzen den hori (marketing, diseinu, kudeaketa, etab. Berrikuntza) Berriki egindako azterlanek erakusten dute (NESTAK Erresuma Batuan, eta Rotterdameko

Erasmus Unibertsitateak) horrek sortzen duela berrikuntza disruptiboen arrakastakusuen %75 eta hazte-berrikuntzako %50.

- Pertsonengan hedatu behar ditugu jarrera berritzaileak (sormena, ekipo-lana, arriskuak hartzea), bai eta sozialki ere, erreferentzia-ereduak sortuz, berrikuntza sortu, garatu, komertzializatu eta hedatuko dituztenak.

Ekintzaile adimendun hori eskura izatea funtsezkoa da berrikuntzaren errendimendua gehitzeko (teknologikoa eta ez-teknologikoa), erakunde publiko eta pribatuaren efikazia hobetzeko, ezagutzaren transferentzia errazteko, eta lehiakortasun globala eta Euskadiren erakargarritasuna hobetzeko negoziotarako herrialde bezala.

Orain egun batzuk direla, Zamudioko Teknologia Parkean Tecnalia eta IK4ren egoitzan, eta Deustuko Unibertsitatearekiko lankidetzan, I. Cleantech Day-a egin dugu eta bertan 13 enpresak teknologia garbietako beren proiektuak aurkeztu dizkiete nazioarteko inbertitzaileei, zeinak etorri baitira lehen eskutik esploratzeko Euskadiren ahalmena teknologiari, enpresei eta proiektuei dagokienez. Lehen erantzuna Cleantech Groupek bere webean iragartzeko duen Cleantech in the Basque Country Means Business! aitortzaren bidez etorri da.

“ZTbP 2015ekin hazkuntza-eredu berri bat bultzatzen ari gara zientzian, teknologian eta berrikuntzan oinarritua”

Euskadiko hazkuntza ekonomikoa, enplegua eta ongizatea biziberritzen laguntzea da helburua. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2015 Plana berriki onartua da hori lortzeko tresna. Guztien partaidetza eta ahaleginetik, eragile publikoen eta pribatuenetik, zintzilik dago apustu estrategiko baten arrakasta, Euskadi krisitik irtetera eta ‘talentuaren metropoli’ bihurtzera gidatu behar duena, sostengatzen du Manuel Salinerok, lehendakari zako idazkari nagusiak

Eusko Jaurlaritzan arestian onartu du geroko Euskadi eraikitzeke funtsezkoa den tresna bat. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2015 Plana da. Hura lantze-prozesuan arduradun nagusi izan zarenez, deskribatuko al zenizkiguke plan berri horren helburuak?

Planaren lehenetsunezko helburua Euskadiko hazkuntza ekonomikoa, enplegua eta ongizatea biziberritzea besterik ez da. Jaurlaritzako beste plan batzuek ere, logikoa denez, orientazio bera dutenez gero, ZTbP 2015k zeharlerro gisa eta era koordinatuan jokatzeko du haiekin guztiekin, ezagutzaren gizarte baten bulkadaren bitartez, EkoEuskadi 2020 garapen jasangarriko estrategiak finkatzen duenez. Lurralde erabat berritzaile baterako igarobidea azeleratzeko, oraingo eta geroko erronkei aplikatutako ezagutzatik lehiakortasuna eraikiko duen batera.

Nola jokatu du ZTbP 2015k papere-tik gertaerarako jauzia?

Bereziki arduratu gara alderdi horretaz, eta beharrezko denbora hartu dugu haren hedatze eraginkorra artikulatu eta bermatzeko. Horretarako hiru elementutan oinarrituko gara: Lehenik

governantza-eredu berri bat finkatzen da emaitzetera bideratua eta prozesu kritiko zehar-lerrokoen kudeaketa batean oinarritura Zientzia, Teknologia eta balio-sortzearen, eta Berrikuntza Sozialaren barrutietan. Nazioarteko praktika hoberenetan oinarritutako eredu bat da, erabaki estrategikoak zuzen egikaritzea segurtatzen duena, Sistemako eragileen funtzio espezifikoak integratuz, eta horretarako hiru maila artikulatzen ditu. Lehena lidergo eta orientazio estrategikoaren maila da, bigarren dator plangintza eta kudeaketarena, eta azkenik jarraipen eta ebaluazioarena.

Bigarren laguntza-elementua fokuratzeguneak identifikatu eta hautatzea izan da, zeinak baitira munduan zeharreko mega-joerak ahalmena dutenak euskal enpresek merkatu-aukerak sor ditzaten eszenatoki globalean. Hala definitu dira merkatu hauek: Zahartzea, Energia, garraioa eta Mugikortasuna, Mundu digitala eta Zientziaren Industria, bai eta Bioteknologia, Nano- eta Mikro-teknologiak eta Fabrikatze aurreratua aipaturiko merkatuei ekin nahi dieten enpresei lagundu behar dien zeharlerroko gaitasun bezala.

Azkeneko laguntza-elementua ZTbParen arkitektura da, bere baitan 9 helburu eta 22 lerro estrategiko dituen, bakoitzari dagozkien programekin eta tresnekin. Hemen enpresei laguntzea sartzen da haien balio erantsia gehitzeko edo merkatu-nitxo globalen lider izateko, hala nola, korporazio teknologikoen garapena, eta gure ehun sozio-enpresazkoari onura egingo dioten entitate eta eragileen kokamendurainokoa.

Halaber beste elementu batzuk ere indartzen dira hala nola, talentua sortu eta erakartzea, erosketa publikoa gure ekonomiaren elementu traktore gisa eta berrikuntza soziala, gero eta

beharrezkoagoa gure gizartearen erronka handiak ebazteko, hala nola enplegua, zahartzea, edo zerbitzu publikoen gero eta eskari handiagoaren eta aurrekontu gero eta doituagoen arteko oreka.

Irismen estrategiko hau duen plan batek bilatzen dituen helburuei dagozkien baliabideak behar ditu, zer aurrekontu-esleimendu egin zaio ZTbP2015i?

Hala da, baliabideek eta helburuek eskutik helduta joan behar dute, eta ildo horretatik plana koherente da eta gure BPGaren %3 I+G-ean inbertitzeko konpromisoa finkatzen du 2015. urtean. Aurrekontu horren ekarpenen banakatzeko lehen postuan sektore pribatua dugu ahaleginaren parte handia bat eginez (%62), baina administrazio publikoek ere indartzen dituzten ahaleginak berrikuntza laguntzeko. Sektore publikoaren aurrekontu-hazkuntzak Berrikuntzako Funtz Estrategikoaren bitartez kanalizatuko dira nagusiki, halako moldez, non sailletako aurrekontuak BPGarekin pare pare haziz joango diren.

Gaurko testuinguru ekonomikoan eta datozen urteetan espero izatekoak diren hazkuntza-itxaropenekin, ba al dugu geure BPGaren %3 I+Genean inbertitzeko 2015ean ahalbiderik?

Galdera alderantzitara egin daiteke, ba al dugu hori ez egiteko ahalbiderik? Jasaten ari garen moduko aurrekontu publikoaren deshaztearen eszenatokian bertan ere, Jaurlaritza honek kosta ahala kosta mantendu nahi du zientzia eta berrikuntzaren aldeko apustua. Zeren geure ehun sozioekonomikoari laguntzeko gai ez bagara bere lehiakortasuna gehitzeko ahaleginean eta horrela desberdindu ahal izateko eta nazioartekotzeko, teknologia-eta sofistikazio-maila igoaraziz, Orduan gure enpresak alboratu egingo dituzte, enplegua galduko dugu, eta hitz batean,



José Manuel Salinero - Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Idazkari Nagusia -
Elkarrizketa - BERRIKUNTZA, ENPRESA ESTRATEGIAREN GIDA-, 2011ko abendua

sakonagoa bihurtuko da gaurko gure krisia.

Berrikuntzaz hitz egiten dugunean gas-tu-adierazleak erabili ohi ditugu, bai eta Europako beste erregio batzuekin konparatu ere egiten dugu geure burua ikuspegi horretatik. Ez al da oso eredu partziala?

Hala da, eta paradoxa bat da, zeren geure gerora inbertitzea bada kontua, lehenik ez genuke hitz egin behar hainbeste gastuaz, inbertsioaz baizik. Baina auziaren funtsak emaitzen adierazleak ezartzeko dauden zailtasunekin du zerikusia, I+G+b-ko inbertsioen itzulkinak balioan jarriko dituztenekin. Ildo horretatik ZTbPak tresnak emango dizkio bere buruari emaitzak identifikatzea ahalbidetuko duten jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta, behar izanez gero, noranzkoa zuzentzeko planaren beraren garapenean.

Hori zerbait beharrezkoa da zure zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemak bere produktibitatea indartzeko konpromisoa, emaitzarako orientabidea gehituz joan dadin, halako moldez non gizarteari egindako ekarpena hobetuz joan dadin, hartan inbertituko den euro publiko edo pribatu bakoitzari, etekin handiagoa ateraz horrela. Horrek, bestalde, kalitateko enplegua eta denboran jasangarria sortzeko aukera emango digu, eta horrek azkenean eragina izango du hiritarren beharrek bat datozen zerbitzu publikoen hornidura bermatzeko.

Sinesgarria al da enpresek bikoiztu egin-gutula I+G-eko beren ahalegina hementik 2015era, gaurko egoera ekonomikoarekin?

Utzidazu gogorazten 2000. urtean enpresek euskal I+G-aren bi heren finantzatzen zituztela, halako moldez, non orain ahalegin pribatuaren biziberritze hori bultzatuko duten baldintzak sortu nahi ditugun. Horretarako funtsez aldatuko dugu

indarrean dugun finantzazio-eredua, finantzazio publikoaren pisu garrantzitsu eta gero eta handiagoa duen hori.

Kontua da gehiago inbertitu behar dela inbertsio pribatua egonean jartzeko gaitasuna duten ekimenetan (teknikoki 'gehigarritasuna' deitzen den horretan) finantzazio-tresna berriak erabiltzeaz, hala nola erosketak publikoak, inbertsio atzeritar handiagoa, multinazionalen I+G-ko zentroak erakartzea, etab.

Ez al zaizu iruditzen ikertegi berriak erakitzeak higitu egin dezakeela sistemak bere osotasunean duen jasangarritasun ekonomikoa?

Sistema oso dinamikoa dugu eta emaitza ekonomikoak eta gizartearentzat balio erreala sortzera bideratuz indartu nahi dugu. Baina bistan dago euskal eredu ez dela eredu amaitu bat, eraikuntzan dagoen bat baizik, eta hartan lekua dago eragile berrientzat, elementu desberdintzaileen ekarpena egiten badute behintzat, lehiakorrek badira eta sistemaren multzoan integratzen badira eta hura indartzen badute, batez ere enpresa-baldintzei eta gizarte-erronkei kontu eginez. Horren apustu esanguratsu bat Zahartzeari buruzko Ikertegi Nazionalaren aldeko apustuan dugu, Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioarekiko lankidetzan, zeinek garatuko baitu ikerkuntza oinarrikoa eta aplikatua gure enpresak kokatzeko aukera emanez zahartze aktiboaren barrutian produktuen eta irtenbideen barrutian, ehun sozio-osasunekoaren balio-kate zabalaren bitartez.

Bukatzeke, apustu egin behar al du Euskadik talentuaren metropoli bihurtzeko?

Euskadik sakondu egin behar ditu bere gaitasunak geure lurraldea aukeren gune bihurtzeko, talentuaren metropoli bezala jokatzeko gai izango dena, eta norabide

batean baino gehiagotan egin behar du hori. Ikerkuntzatik, esaterako, ahaleginak indartu egin behar dira zientzia eta teknologiko bokazioak areagotzeko, horiek baitira geroke haziak. Ez dezagun ahaztu baditugula beren bikaintasunari esker gailentzen ari diren unibertsitateak, lehen mailako ikertegi eta teknologia-zentroak, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa egin duten enpresak lehiakortasun-faktore bezala eta erakunde publiko batzuek hori dela bidea sinetsirik daudenak. Ez da kasualitatea gero eta gehiago izatea Euskadiz kanpoko ikertzaileak lurralde hau aukeratzen dutenak beren karrerak garatu eta indartzeko, eta horrek esan nahi du hazten ari dela gure erakartze-ahalmena zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-gaian. Baina beste talentu mota batzuk erakartzen ere lan egin beharra daukagu, pertsona ekintzaileak, edo sortzaileak dutena bezalakoak erakartzen.

Zinez uste dut ZTbP 2015 tresna egokia dela talentu horrek guztiak bere gaitasunak areagotu ditzan eta gure herrialdean aberastasuna eta ongizatea sortzen lagun dezan.



“Cleantech-ek Euskadin negozioia esan nahi du!”

Stephen Marcus - Cleantech Group-eko kidea - Cleantech Insights, 2011ko urriaren 5

Mundu guztian barrena berriaturiko cleantech kluster bibrakorretako batzuetan pentsatzen denean, ez da kontuan hartu izan ohi Euskal Herria. Eta hala ere Cleantech Taldearen biurteroko Zuendaritza-bileran parte hartzeko erregioa bistatu nuenetik, orduan Innobasquerekin elkarturik egin zena, erabat aldatu nuen neure jarrera eta hori da zuek ere egin beharko zenuketena.

Bilbo, euskal hiri garrantzitsuenaren sarrera-zubietako bat gurutzatzen ari nintzela ezinbestez erreparatu behar izan nion Guggenheim Museoaren titaniozko fatxada uhindu erraldoiari Torre Iberdrolako etxeorraz berriaren kontra zutik zegoenari. Biak dira hiriaren eraldatze-sinboloak. Izan ere industriagune izatetik berrikuntza-gune izatera igaro da azken bi hamarkadetan.

Estatistika batzuk harrigarriak dira. ELGEn Euskal Herriko erregio-berrikuntzari buruzko Analiisiak dioenez, erregioiko I+Garen %70 baino gehiago ETEen kontura doa (250 enplegatu baino gutxiagoko enpresak) Erresuma Batuko %20 baino gutxiagorekin konparatuta. Gainera, I+G jarduerak hasten zituzten enpresen kopurua 110tik 1998an 343ra gehitu zen 2007an. Erregioak baditu halaber bi Korporazio Teknologiko, Tecnia eta IK4 Research Alliance, 3.000 enplegatu baino gehiagorekin, zeinetarik 750 ikertzaile espezializatuak baitira teknologia garbietan.

Hiriak birsortzeak ere aukera ugari eman dizkiete teknologia gabiei sektore ekonomiko berria den heinean. Korporazio handietako askok interes handia erakutsi dute “hiri-ingurune adimendunak” garatzeari dagokionez, izan ere teknologia garbien eremu askorekin dute zerikusia: mugikortasuna, energia, eraikuntza eta hondakinen kudeaketa. Espainiako energia-enpresa handienak eta prestigiotsuenak, hala nola Iberdrola, Repsol, Gamesa, eta Mondragon beren

eginkizun nagusiez harago joaten hasita Daudet irtenbide horietan inbertsioak egiteko. Adibidez, duela hilabete batzuk, Gamesak, turbina eolikoen espainiar enpresak kapital-arriskuko funts bat sortu zuen 50 milioiko aurrekontu batekin sei sektore berritan inbertitzeko maila globalean: energia marea-energia, energia-biltegiatzea, lehen belaunaldiko sistema fotovoltaikoak, saretik independenteak diren energia-sistemak, e-mugikortasuna eta energia-efizientzia. Iberdrolak eta Repsolek ere arestian sortu dituzte arrisku-kapitaleko antzeko ekimenak

Parez pare berrikuntza-kultura eratzen duten beste elementuetako asko sortuz joan dira: laguntza ematen dien gobernu bat, lehen mailako ingurune akademiko bat eta enpresa berrien erkidego eferbeszente bat. Gure bisitaren parte bezala sektore desberdinetako sei enpresa itxaropentsuren aurkezpenetan izan ginen: EcoMotion, Hub Ingeinnova, HBiO, Efficient Home Energy, ABG Biotech, eta Alpetek. Bilbon izandako Cleantech Open gertaldiko sei cleantech finalistaren aurkezpenetan ere izan ginen, zeinen irabazlea PowerTrack laster San Franciscoko munduko finalean aurkeztuko baita azaroan.

Begi-bistako gertatu zitzaidan enpresa-espirtua bizi-bizirik dagoela eta erregio guztiak gogoia handia duela munduan berrikuntza-ekosistemarengatik ezagutu dezaten, bereziki teknologia garbiekin zerikusia duen heinean. Azken hogeitau urteetako industria-erlaketaren lastertasun eta kalitateak jarraitzen badu, laster ikusiko ditugu cleantech euskal enpresa berriak nazioarteko zirkuituan dihardutenak.



“Laugarren sektoreko enpresak, errealitate bat Euskadin”

Txema Franco - Lantegi Batuak-eko Zuzendari Nagusia - El Correo, de 2011ko abenduaren 6

Euskadin ekonomia sozialeko errealitate ugari dago, baina agian gutxien ezagutzen eta aitortzen dena eskusio-arriskuan dauden eta denentzat zaila den lan-merkatu batera iristeko zailtasun larriak dituzten kolektiboak gizartean eta lanean txertatzen lider diren, baita estatu mailan ere, irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira.

Haien garrantzi erlatiboaz ikuspegia emateko gure lan-merkatuan esan beharra dago enpresa sozialak Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE), laugarren sektore deitua funtsean Enplegu Zentro Bereziek (EZB) eta Txertatze Enpresek (TxE) eraturik dago. Innobasque, Berrikuntzako Eusakal Agentziak ere, bere estrategia eraldatzaileen barruan, laugarren sektorea identifikatu du ez bakarrik erakunde gorakor bezala, baizik eta etorkizunean enplegua sortzeko ahalmen handiko fenomeno bezala ere.

Euskadik Enpleguaren Zentro berezien sektorean lider da estatu-mailan. EAEn EZB kalifikazioa duten 98 enpresa gehiengo handia batean ekimen sozialeko irabazi-asmorik gabeko entitateek sustatuak dira eta oro har ahalmen urritasuna duten 6.500 pertsona eta maila orokorrean 145 milioi euro fakturatzen dituzte. Lan-aukerak sortzen dituzte gizartean eta lanean txertatzeko ibilbideen kudeaketa pertsonalizatu eta haien gaitasunetara egokituen bitartez, eta urritasuna intelektual, fisiko, sentsorial, gogonahastea, garun-paralisia, traumatismo kraneoenzefalikoak edo garuneko kaltea duten pertsonak erabiltzen dituzte, bai eta urritasun iraunkorrak dituzten pertsonak ere lanbide-birkalifikazioko beharrek. Irabazi-asmorik gabeko zentro horiek, 1987tik, Ehlabe elkartearen taldekatuak daude.

Txertatze Enpresak ere badira, hirugarren sektoreko entitateek sustatuak eta eskusio-arriskuan dauden pertsonak lanean txertatzen laguntzeagatik

ezaugarritzen dira. Guztira, 41 dira txertatze-enpresak, eta 375 pertsonako kolektibo bat erabiltzen dute egoera horretan eta 17 milioi euro inguruko fakturazio bat batzen dute. Euskadi Gizatea elkartearen taldekatuak daude.

Beraz, enpresa sozialen bolumen esanguratsua baino handiagoaz ari gara hemen, lan-merkatu iristeko arazo larriak dituzten 7.000 pertsona baino erabiltzen dituztenak eta guztira 163 milioi euro baino gehiagoko salmentak dituztenak. Enplegu-bolumen horri urritasunik gabeko 1.000 irakasleena batu behar zaio, sektorean baitihardute laguntza-lanetan integrazio sozial eta lanekoaren prozesuetan eta urritasuna duten 1.000 pertsona baino gehiago, enpresa normalizatueta txertatu dira, entitateek lagundurik. Hitz batean, sektore honek zuzeneko enplegua sortzen du 9.000 pertsona baino gehiagorentzat. Sektore hau, estrategikoa da oraindik, enpleguarentzat zailak diren garaiotan.

Euskadi autonomia-erkidego desberdinen rankingaren buruan dago, 1.000 biztanleko urritasuna duten 3,1 pertsona enplegatuaren indizearekin (espainiar batez bestekoa bost bider biderkatuz), ondoren Nafarroa datorrelarik 1,6rekin, gainerako erkidegoak 1aren azpitik geratzen direlarik.

Ekimen multzo honek induzitu eta eragindako onura gehigarriak kalkulaezinak dira, gizarte-kohesioaren, erkidego-loturaren, lurraldearen egituratze sozialaren, efikazia eta efizientziaren, gastu publikoaren kudeaketa eta birbanaketa fiskalaren, zaintza formal eta informaleko beste sistema batzuk ordeztaren, osasun-sistemen eta gizarte-zerbitzuen aurrezkiaren, politika pasiboetatik aktiboetarako pausoa sustatzen lankidetzaren publiko pribatuaren eta abar amaigabe bat, azterlan xeheagoa mereziko lukeela balioan ezarria izateko terminoetan.

Beharrezkoa da enpresa sozialek joka dezaketen papera nabarmentzea enplegu-gabezia handia murrizteko formula hori oso

eraginkor bezala agertzen ari den unean, zeren eta negozio-aukerak garatzeko gai diren enpresak baitira jardueraren sektore askotan, nola tradiziozkoetan (azpi-kontratazio industrialak, garbikuntza, lorezaintza, zuzeneko marketing-a eta laguntza-zerbitzuak), hala enplegu-harrobi berrietan (teknologia berriak, merkataritza, banakuntza, autonomia pertsonala, turismoa eta ostalaritza).

Urritasuna duten pertsonen kolektibo horren %45 bakarrik da biztanleria aktiboaren parte, 12.000 baino gehiago direlarik lan ez dezaketela, enplegu baten jabe ez direnak. Eskusio-arriskuan dauden pertsonen kolektiboari dagokionez, aski bedi esatea diru-sarreraren berme-errenta gaur egun hartzen dutenak potentzialki aktibagarriak izango lirakeela; hau da, 10.000 pertsona. Laugarren sektorea eratzen duten ekimen sozialeko irabazi-asmorik gabeko entitateen esperientzia, ibilbidea eta egiten jakitea baliatzea kritikoa izango da Euskadiko 20.000 pertsona baino gehiagoren enplega-garritasunaren tarte murriztu nahi badugu.

Asko geratzen da egiteko, baina eremu honetan egin ditugun aurrerapenek ideia bat ematen dute enplegua sortzeko dagoen ahalmen ezkutukoaz, ez bakarrik enplegu-gabeziaren terminoetan bizitzen ari garen garai zailotan, baizik eta kolektibo hauek aurre egiteko dituzten zailtasun bereziengatik lan-merkatuan sartzeko denok kohesionatuagoa, bidezkoagoa, barne-hartzaileagoa eta solidarioagoa nahi dugun gizarte baten parte aktibo izan daitezten.



"2039an entitate adimendun ez-biologikoak izango dira"

Claus Risager - Robotika Teknologiako Daniar Zentroaren Zuzendaria - Elkarrizketa - Deia, 2011ko abenduaren 2

J. FERNÁNDEZ. Bere berrogeita bi urterekin, hogeitasei baino gehiago daramatza konputaziozientzietan, robotikari eta adimen artifizialari emanak Claus Risager Europa Batzordearen lankidea da I+G proiektu-proposamenen ebaluazioetan, eta Robotikako Europa Plataformaren kide da.

ZAMUDIO. Etorkizuna argi dago; edo ilun, nola begiratu zaion. Tokioko azken robotika-azoka lelo honekin egin zen "Etorkizuna robotekin eraikitzen" eta mezu horri atxikitzen zaio Claus Risager daniarra, gai horretan egiazko aditu bat dena. 2040an begiratuko al dute 2011ra eta zeinen bizimodu primitiboa zeraman jende hark esango al dute? Botatzen du konbentziturik giza kontzientzietarantz.

Oraindik ez dugu esploratu garuna eta dagoeneko adimen artifizialaz, robotikaz ari gara hitz egiten. Ez al goaz bizkorregi?

Galdera oso sakona, baina esango dizut 2023rako ordenagailu-txip bat erosi ahal izango dugula mila dolarretan giza garun batek adinako prozesatze-gaitasuna izango duena. Hamabi urte geroago zentabo bat kostako da. 2049an mila dolarretan Gizadi osoak adinako prozesatze-gaitasuna izango duen txip bat lortu ahal izango dugu.

Eta zer diostazu makinaren adimen emozionalaz...

2039an kokatzen da singularitasun-puntua, hain zuzen entitate ez-biologiko bat izango dugu orduan, robota izango dena eta gu baino adimentsuagoa. Argiro hori esaten duten iragarpenak daude. Orduan galderak honelakoa izan beharko luke zein izango da gure papera eta zein robotarena?

Bada, galdera hori egiten dizut.

Ordurako entitate ez-biologiko eta adimendun horiek ikusiko ditugu gure artean eta berrogeigarren hamarkadan cyborgez hitz egingo dugu.

Benetan uste al duzu gizakiak bere gurena partekatu nahi izango duela?

Noski. Denok maneiatzen dugun desira bat da. Zure gaitasun mental edo gaitasun fisikoak konpondu eta hobetzea lortuko bazenu, edo 120 urtetara iristea eta era guztiz independentean bizi izatera...

Orduan fusioaz ari zara.

Bai. Oso debate garrantzitsua da 40. hamarkada horri aurre egiteko.

Robotikako Europa Plataformaren Kontseiluan zaude, zein da EBaren jarrera gertaera horren aurrean?

Badira ekimen batzuk robotikari aplikatzeko arau etikoak definitzeko.

Adibidez?

Robotei esatea sekula ez zaiela baimenduko gizakiari kalte egitea.

Filmetan bezala, ezta?

Iraken, uler dezagun, badira armak darabiltzaten eta disparatzen duten robotak, baina urruneko kontrol bati menderatuak. Jendea detektatzen dute teilatuetan eta mezua transmititzen diete soldaduei eta galdetzen dute: zer egin behar dut? Soldaduak erabakitzen du disparatzea edo ez.

Erabilera militarra beti lehena izaten da...

Bai, hori guztia gaizki erabil daiteke, jakina.

Baina izango dira beste erabilerak ere.

Beste asko

Eta nondik doaz tiroak orain...

Hamarkada honetan AJV logistikaz eta sareetako robotez dihardugu. Adibidez, ospitale baten kasuan, diruaren eta denboraren %30 gauzak mugitzen gastatzen da. Robotak gai izango dira ataza hori efizientziaz egiteko.

Orduan lana kenduko dute.

Ikerkuntza asko egin dira gai horretaz eta robotek lanak sortzen dituzte, baina epe luzera, noski. Eta gainera eraldatzaileak dira. Oreka bat ezartzea da kontua kualifikazio altuen eta baxuen artean. Bestela, dena galduko duzu: ez da izango enplegurik

ezagutzarekin eta herrialdea hil egingo da.

Eta zeintzuk dira joerak?

Sareko lan-robotak. Google dago lan horren burlan. Ideia da zerbitzuak emango litzuzkeen datu-hodei bat. Adibidez, robotek edalontzien argazkiak ateratzen dituzte eta milaka milioi irudi horiek hodeira igotzen dira eta haien erabilerari buruzko informazio aberasten dira. Eta horrek esan nahi du robot merkeagoak eraiki ditzakezula.

Sentitzen dut, baina ez dut ikusten...

Nik zerbait erakutsi nahi badizut, gauza mordo bat azaldu behar dizut: horrek luze jotzen du eta jakin ere ez dakit irakatsi dizudana xurgatzen duzun ere. Baina robotak bagina zeure garuna eraitziko zenuke sarera bat-batean lortzeko.

Eta gu, entxufatuko al gara?

Ez nago ziur gai izango ote garen gauza mota bera egiteko. Bakoitzak geure garuna dugu, baina baliteke robot laguntzaileka izatea gure ordez gauzak egin ditzaketenak. Cyborgen aroan agian partekatu egingo dugu oroimena gure garunaren guneren batean. Agian.

Esango nuke ezin konta ahala robot eza gutzen dituzula baina, zein da etxerako gogokoena?

Xurgagailua. Urte pare batean aginduak ulertzeko gai izango dira.

Ildo horretatik, Etorkizuna hobeto dator.

Sekula ez du izan itxura hoberik.

Gizkaiek bakarrik egiten dute huts...

Ez, ez. Guztiaren epizentroan aurkitzen gara. Hori da nahi duguna. 1850ko norbait hartuko bazenu milioi bat gauza azaldu beharko zenizkioke eta zeinen bizitza tristea esango zenuke. Baina 2040an 2011ra begiratuko dute eta esango dute, a zer bizimodu primitiboa zeraman jende hark.

“HIB: Indentitadedun laborategiak”

El País, 2011ko abenduaren 9



S. ZUBELDIA. HIB SL (High Identity Buildings), Ondarroan egoitza duen firma bat 2008an jaio zen Adolfo Antelo eta Javier Agirre ingeniariaren ekimen bezala. Aholkularitza teknikoan, lab planning, laborategietarako eraikinrentzako ingeniarietza, arkitektura eta garapenetan espezializaturiko enpresa bezala sortu zen. Bai Antelok eta Bai Agirrek 15 urte baino gehiagoko esperientzia dute eta 2.000 laborategi-proiektu baino gehiago teknologia-sektorean. Urtebete geroago euskal enpresa berri hoberenarentzako saria irabazi zuen, Garapen, Garapen Agentzien Euskal Elkarteak ematen duen saria Gaur egun hiru milioi euro fakturatzen du era zuzenean eta kopuru hori hamarrez biderkatze aurreikusen du bost urtetan

Gaur egun 17 enplegatu ditu nominan. HIB lehen enpresa izan da Innobasqueren Enpresa Azeleratzailearen zigilua jasotzen; azeleratzaileak nazioartekotzeko asmoa duten konpainia berriak laguntzen die eta modu bizkorrean esponentzialki hazten. Izan ere gauza bat bestearekin loturik doa. Konpainia honen zerumugan, Antelok dioenez, “ezagutza-lider” bihurtzea dago krisiari aurre egiteko.

Antelok eta Agirrek urte luzetan arazoekin topo egin zuten “laborategien eraikin-planteamendu eta garapenarekin eta haien kontzeptzio tradizionalarekin”, kanpoko definizioetik hasita -eraikinetik- barrurantz -laborategia-. Agerian jarri zen horrela eraikina definitzen duten faktoreek laborategiaren diseinua baldintzatzen eta eginarazten dutela” Antelok nabarmentzen duen bezala.

HIBen, alderantziz, laborategien definizioa bere behar propioetatik finkatzen da proiektuaren aurretiko urrats batean eta eraikinaren definizioak bere gain hartu beharreko parametro bihurtzen dira. Hala konpontzen dira

plangintza tradizionalan egindako akatsak eta laborategia “optimizazio handienarekin, ingurune estimulatzaileekin, ongi planteatu eta diseinatuekin, pertsonen beharrei lehentasuna emanez”, azpimarratzen du enpresako zuzendari nagusiak.

Zer laborategi mota den eta bertan zer jardueratan aritzen diren kontuan hartu gabe, jasangarritasun kontzeptua laborategi batekin lotu baino lehen dimentsio ekonomiko, sozial eta ingurumenekoari hertsiki loturiko ezaugarri batzuk agertzen dira. Hartara, laborategi jasangarri batek funtzionala, malgua, irisgarria, produktiboa, segurua eta ingurumenarekiko begirunetsua izan behar du. Hau da, pertsonentzako pentsaturik egon behar du, okupatzaileak izan edo erasak izan daitezkeen guztiak, era batera edo bestera, bertan burutzen diren jardueren aldetik Enpresaren konpromiso irmoa dago jasangarritasunarekin eta ingurumenarekin, berrikuntzaren aldeko “apustu sendo” baten bitartez.

“Gure fakturazioaren%7 baino gehiago bideratzen dugu I+G+b-ra”, azpimarratzen du. Apustu hori islaturik dago bere partaidetzan Egnaton erakundearen kide betearazle bezala - maila europarrean eta batzorde betearazleko kide bezala- eta Lab21 -maila estatubatuarrean-, bai eta laborategi jasangarrien etorkizuneko mundu-sarea izango denaren foro sortzailean ere.

Joan den urtean, HIBek Maite Fundazioa sortu zuen (Ingurumena, Berrikuntza eta Teknologia, www.fundacionmaite.org), zeinaren eginkizuna “erakundeek, nola publikoek hala pribatuek laborategien edo laborategi-erakinen jabe edo kudeatzaile direnek, ikerkuntzaren edo irakaskuntzaren barrutian, instalazio funtzional eta seguruen aldeko apustua egin dezaten sustatzea da, jasangarritasunaren ildotik”, azaltzen du Antelok.

Aldi berean, HIB Laborategi Jasangarrien Espainiar Sarearen sortzailea da, laborategien erakinetarako teknologia jasangarrien terminoetan parametroak eta gomendioak sortzera bideratutako proiektua. Laborategiekin zerikusia duten alderdi guztiak mota ekologiko, ekonomiko eta sozio-kulturalako irizpideen pean kontsideratzen dira.

HIBek biozientzia-proiektuen lider izan da Innoprot, Idoki, Genetadi, Bti, Midatech, Biofalmik, Euskal Teknologia Parkeetako Miramon laborategiak eta Osasun Publikoko Bizkaiko laborategi berrien egoitza bezalakoetan. Arestian Valentziako La Fe eta Santanderreko Marqués de Valdecilla ospitaletako laborategi berrien diseinuaren edo LabPlanningaren esleipendunak izan ziren, bai eta haien ikerkuntza-erakinenak ere.



“Korporazioaren barruan eragile ugari ditugu berrikuntza ekarpen handia egin dezaketena”

Eduardo Beltrán de Nanclares - MONDRAGONgo Berrikuntza eta Teknologia Zuzendaria - Entrevista - TUIankide, 2011ko abenduaren 5

Zer helbururekin abiatu zen Berrikuntza eta Teknologia Departamentua Innobasquek diseinaturiko estrategia honetan?

Prozesu mota honetan, non helburua zer noranzkotan berritu behar dugun zehaztu behar den, eskuarki lan-ekipo oso zehatzak egiturazten dira. Baina horretara, bazegoen beste input batzuk jasotzeko aukera, bai Korporazioaren baitatik eta bai kanpotik.

Zein izan da erabilitako metodologia?

Hiru estrategia zehatz zuzendu genituen ideiak jasotzeko. Innobasquek eskuratutako euskarri fisiko bera erabiliz hiru stand jarri genituen Korporazioan: bi sarreran eta beste bat bulegoetan. Posta bat ere bidali genien kargu garrantzitsuak dituzten Korporazioko pertsona guztiei ere: kudeatzaile, lehendakariorde, zuzendari tekniko, pertsonal tekniko... Halaber, Innobasqueren Webean (www.unminutoparalainnovacion.com) Wiki motako gune bat prestatu zen jendeak bere ekarpenak ezar zitzan. Orainxe jaso ditugu ideia guztiak eta horiek aztertzea dagokigu orain.

Zer balioespen egin duzue proposamenaz?

40 ideia jaso ditugu. Badira iradokizun oso interesgarriak eta hainbestekoak ez diren beste batzuk, baina oro har metodologia mota honetan inbertitutako denbora ebaluatu behar da emaitzaren aurrean; eta lortutako ratioa oso baikorra da. Kasu honetan ahalegina oso baxua izan da: Innobasquek ekarri digu materiala eta metodologia, eta gure departamendutik ez diogu eskaini denbora askorik. Beraz, balioespena oso ona da.

Korporazioko Berrikuntza-departamentuko erronka nagusia 2012rako berrikuntza-eredu berria garatzea da

Zorionez Korporazioaren barruan eragile ugari ditugu prozesu horretan ekarpen handia egin dezaketena: unibertsitatea, teknologia-zentroak, enpresa-I+G unitateak,

berrikuntza-poloak, jarduera berrien sustapenerako zentroa BAC Business Acceleration Centre mekanismo batekin abian dagoena, nazioarte-mailan ordezkaritza-sare bat...Egoera inbidia garri batena gaude berrikuntza-eredu berri bati aurre egiteko. MONDRAGONen ez dugu ulertzen berrikuntza I+G bezala bakarrik baizik eta teknologien, negozio berrien garapen lerro bat barruan ulertzen dugu...Eta ikertzea bakarrik ez da kontua, gero ondoren hori guztia merkatura eramane behar da.



"Bilboren birsortzea jarraibide bat izan da"

Richard Youngman - Cleantech Group Zuzendari Kudeatzailea - Elkarrizketa - El País, 2011ko urriaren 4

L. MINGALLÓN. Richard Youngman zuzendari kudeatzailea da Europarako Cleantech Group-en, teknologia garbieten enpresa-talde aitzindaria, zeinek Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziarekin batera gaurko antolatutako baitu Zamudioko Teknologia Parkeko Gaiker IK4-Tecnalia European Cleantech Advisory Board, foro bat non azalduko diren teknika horiei buruzko azken beritasunak.

Zer dira teknologia garbiak?

Ere bat baino gehiago hartzen dituzte. Ingurumen-inpaktu baikor bat izatea eragiten duten teknologia dira, bai eta inpaktu ekonomiko aldi berean baikorra ere. Energia berriztagarriak hartzen dituzte - eguzkitikoa, biomasa eta eolikoa- bai eta beste teknologia batzuk ere, zeinek laguntzen baitute eraikinak jasangarriagoak izatea energia-efizientzia, argia eta materialengatik; garraioa, ibilgailu elektrikoekin; hondarrak eta hondakinak.

Zein dira gehien harritu zaituzten enpresa-proposamenak eremu horretan azken aldi hauetan?

Eraikin komertzialetan edo egoitzetan aplikatzen direnak pertsonari erabiltzen duten energia, ura eta beste baliabide batzuen kantitatea zehatz ezagutzen laguntzeko.

Zer egingo da gaurko European Cleantech Advisory Board honetan?

Duela zazpi urte, geure ekimenak Europan hasi genituenetik teknologia horiek garatzen dituzten enpresa interesgarrienak zein diren ezagutzen saiatzen gara. Foroak antolatzen ditugu eta horietara etortzen dira gure enpresetako inbertitzaile aktiboentako batzuk.

Gaurkoan Euskal Herriko eta Espainiako teknologia garbiez hitz egingo dugu. Ideia guzueko firma interesgarrienetako

batzuk aurkitzea, garapenari dagokionez zer gertatzen ari den ezagutzea. Korporazio handienetako batzuen funtzionamendua ere jakin nahi dugu, Iberdrola eta Gamesaren adibidez.

Euskal Herriak teknologia garbien aldeko apustua egin al du?

Hori ezagutzea da bilkuraren helburuaren parte bat. Baina baietz uste dut. Iberdrola bezalako enpresak oso aktiboak dira gune honetan. Badakit badela proiektu bat ibilgailu elektriko bati buruz. Eta Bilboren birsortze handia jarraibide bat izan da.

Zerk egiten du erregio bat hain erakargarria izatea teknologia garbientzat?

Ikerkuntza eta garapen handia behar da, unibertsitateekin. Ekintzaile-kultura ere behar da, berrikuntzak aplikatzeko enpresak eraikitzeko prest dauden pertsonak. Bestalde, ona da laguntza-azpiegitura bat izatea ikuspuntu politikotik, laguntza eta pizgarriak emango dituenak. Badira erregio batzuk puntu batzuk dituztenak eta oso gutxi dituzte guztiak.

Teknologia horiek lege-eremu zabal bat behar al dute diru-laguntzekin?

Energia garbien munduan, batez ere berriztagarrienean, bai. Nahiz eta badiren gune batzuk laguntza hori behar ez dutenak. Edozein kasutan, energia tradizionalaren industriak laguntza gehiago hartzen du pizgarriari dagokienez berriztagarriek baino.

Zein dira merkatu interesgarrienak?

Asiar herrialdea, Txinak eta Indiak ez dute behar duten guztia, horregatik bada han aukera bat europar eta amerikar enpresentzat. Europa teknologia garbien lider da.

Enpresaburuek ba al dute ingurumen-erantzukizunik?

Bai. Lehen enpresa handiek beren inbertitzaileen aurrean bakarrik erantzuten zuten eta modu arduragabea portatzen

ziren Ingurumenarekin. Baina hori izugarri aldatu da partez kontsumitzaileek bere dagoeneko ikusten dutelako Ingurumena gai serio bat dela.

Hiruhileko argitalpenak



RSE y competitividad en Euskadi. Una aproximación desde la Innovación Social


Egilea: **Innobasque**

Data: 2011ko azaroa

Argitalpen honek, Innobasqueko EESeko i-Taldearen lanean oinarrituta burutuak, EES Enpresa Erantzukizun Sozialeko tresna eta estandar nagusiak bateratzen dituenak EESean sakontzeko edo barneratzeko interesa duten erakunde eta enpresa guztiei lan-tresna ballotsu bat ezagutarazi eta eskuratzeko asmoa du.

Gainera, dokumentu honek era errazean azaltzen du zer den Enpresa Erantzukizun Soziala eta zer neurritan EESeko neurriak hartzeak hobetzen duen erakundeen lehiakortasuna, eragina duen haien aipuan eta legitimotasun sozialean eta finantza-merkatuetan erakarpeta sortzen duen Horregatik, adibideak jasotzen ditu EES nola gauzatzen den ingurune, antolaera- eta merkatu-testuinguru desberdinetan, eta nola balioesten duten balio-ekarpeta beren enpresa-proiektuei, sozialki arduraduna den enpresa-jardueraren zuzeneko protagonistek, zeinak kasu honetan 50 euskal erakundek ordezkaturik baitaude.

Argitalpen honen bertsio osoa eskura dago pdf formatuan eta laburpen betearazlea pdf eta paperean.
Argitaratzaile: Innobasque



Euskal Hiriruntz? Lurralde Benchmarking gizarte berrikuntzatik konparatuta

Egilea: **Igor Calzada**

Data: 2011ko azaroa

Gaur eguneko euskal eszenatokian aldakuntza garrantzitsuak ari dira gertatzen Gizarte Berrikuntzaren ikuspegitik "Euskal Geografiak" edo berdin dena Euskal Hiria dagoeneko bidea egiten ari ote den galdetzera gara Euskal Hiri-Erregio baten formazantz, horrek gizarte, enpresa eta erakunde-erlaketaren aldetik esan nahi duen guztiarekin. Euskal Hiria, lurralde bat ulertu eta kudeatzeko era bat bezala, haren sareak, haren gobernantza, haren estrategiak eta herrixka globalean duen kokamendua.

Dokumentu honetan Euskal Hiriaren kasua aurkezten da beste bi hiri-erregiorekin konparatuz: Portland (Oregon-USA) eta Dublin (Irlanda).

Argitaratzailea: Innobasque



¡Cleantech-ek Euskadin Negozioa esan nahi du!

Egilea: **Innobasque**

Data: 2011ko abendua

"Cleantech" edo Teknologia Garbiak aukera paregabea dira hazteko nazioarteko gaurko krisian. Teknologien merkatu globalaren hazkuntza-ratioak lehian ari dira aurreko beste teknologia-iraultza batzuekin, hala nola telefonia, ordenagailuak edo Internet berarekin. Hala, Clean Edge1n azterlan baten arabera, 2000 eta 2010 bitartean eguzki-energia fotovoltaikoaren sektoreak urtean %39,8ko batez besteko hazkuntza izan du, energia eolikoaren sektoreak %29,7koa, eta era berean beste sektore batzuek hala nola ibilgailu elektriko eta hibridoenak, erakin "berdeek" edo "smartgrids"ek bezala.

Argitaratzailea: Innobasque



Euskadi envejece. Innobasque en el ámbito del envejecimiento activo y saludable

Egilea: **Innobasque**

Data: 2011ko abendua

Biztanleria zahartzea aurrekaririk gabeko erronka bat da orain beste inoiz ez bezala. Euskadik Europako soslai demografiko zahartuenetako ageri du, eta kezagarriena dena, egoera hori larritzen duen joera batekin. Baina hori guztia gorabehera, eta barruti batzuk salbuetsirik, hala nola sozio-osasuneko, zahartzea ez da ari aurreikusgarria izango litzatekeen ekintza, nahiz eta egitura demografikoan halako aldakuntzak eraldatze sakon bat eskatuko lukeen gure gizartearen antolaera-ereduarena

Argitaratzailea: Innobasque



Memoria Gipuzkoa Berritzen 2010-2011

Egilea: **Gipuzkoa Berritzen - Innobasque**

Data: 2011ko abendua

Berritzeak aurrera begiratzea esan nahi du, aurrera egitea, gelditu eta egindako lanari begiratzea. Oroimen-ariketa egokia da 2010 eta 2011 urteetan garatutako lanari berrikusi bat emateko. Harro gaude memoria honetako edukian erakusten denaz, baina hurrengo aukeretan hobetzeko ilusioarekin. Geure lurraldea eraldatzen lagundu nahi dugu. Eta horretako ekintza-ikastaro berriak sortu behar dira. Guztiaren gainera, garrantzia gauza batek du: pertsona asko izateak ekintza-ikastaro horietako protagonistak.

Argitaratzailea: Gipuzkoa Berritzen - Innobasque

Jasotako argitalpenak



Estrategia

Egilea: **B+I Strategy**

"Estrategia" argitalpenaren lehen zenbakia jendarteratzea, gune ireki bat, laborategi sortzaile bat eratzeko xedearekin jaio delarik, non B+I Strategy-ko bazkidetu bakoitzak bere norbanako-talentua esploratuko duen, pasioan, koherentzian eta eguneroko suhertasunean oinarrituriko koru-lan baten atal ordeztezinak bezala

Banakako ekarpen horiei, gainera, nazioarteko bere aliatuen, hamarkada luzetan txirikordaturiko giza eta lanbide-sarearen gogoetak eta irakaspenak txertatuko zaizkie. Horregatik guztiarengatik, hau argitalpen espontaneo bat da, izaera eklektikoko artikulua eta gogoeten nahaste zinezko bezain xaloa, zeinaren atzealdeko doinua Estrategia baita, letra larriekin, enpresa-bidaia partekatuta baten jatorri eta helmuga bezala.



España: Percepción Social de la Ciencia y la Tecnología 2010

Egilea: **FECYT**


Urte bat gehiago, FECYTEK Zientzia eta Teknologiaren Pertzepzio Sozialeko argitalpen berri bat aurkezten du, 2010eko inkestan jasotako datuei dagokiena. Fundazioak bi urtez behin 2002. urtetik hasita egiten duen bosgarren inkesta da. Azterlan soziologiko honek badu gaur egun ia 8.000 elkarrizketako lagin bat eta gizarteak zientziaz eta teknologiaz duen analisi-tresna indartsu bezala sendoturik dago.



KPMG International Corporate Responsibility Reporting Survey 2011

Egilea: **KPMG**

KPMG aholkularitzak gobernantza korporatiboaz egindako azterlanak dio aurtengo zenbakian Global Fortune 250 (G250) rankingean bildutako konpainiek informazioa argitaratzen dutela bere erantzukizun korporatiboaz (EK). KPMG International Survey of Corporate Responsibility Reporting 2011 izenburuko azterlana jakinarazten du mota honetako azterlanen argitalpenak, esaterako industria farmazeutikoen, kontsumo-ondasunen edo eraikuntza sektorean bikoiztu egin direla KPMGek 2008an egindako analisiaren azken ediziotik, zeinean aztertzen baitira joerak G250ko konpainietan eta munduko beste 3.400 konpainiatan mundu guztian, zeinen artean baitaude garrantzitsuenak, nazio-mailan, 34 herrialdetakoak eta 15 industria.



World Energy Outlook 2011. Resumen ejecutivo

Egilea: **IEA (International Energy Agency)**

(AIE) World Energy Outlook-en honako edizio honek munduko energia-sistemaren gain dauden mehatxuak aztertzen ditu, bai eta aurkezten zaizkion aukerak energia- eta klima-joeren analisi kuantitatibo zorrotz baten bidez. Analisisiak hiru eszenatoki global ditu eta zenbait arazoren azterketa. Txosten honen eszenatoki zentrala Politika Berrien Eszenatokia da, zeinean suposatzen baita energia-politika gaiko konpromiso arestikoen era zuhurrean aplikatzen direla -nahiz eta oraindik ez dauden neurri irmoz abalatuak.



Tecnologías para el Envejecimiento Activo

Egileak: **FENIN (Federación Española de Empresas de Tecnología Sanitaria) y OPTI (Fundación Observatorio de Prospectiva Tecnológica e Industrial)**

Azterlan honen zioa industria medikoarentzat informazio estrategikoa lokalizatzearen interesa da, zahartzearekin erlazioaturiko eta mendekotasun-tasa gehitzearekin kideaturiko aukera terminoetan, zahartze aktiboa lortzeko helburua delarik errealitate berri horren barruan. Zahartze aktiboa, OMEren arabera "ongizate fisiko, sozial eta mentaleko aukera optimizatzearen prozesua da, zahartzaroan bizi-itxaropen osasuntsuaren, produktibitatearen eta bizi kalitatearena helburua hedatzeko helburuarekin".



Smart Cities: un primer paso hacia la internet de las cosas

Egilea: **Fundación Telefónica**

XXI mendea hirien mendea izatera deiturik dago. 2007ko uztaillean hiri-biztanleriak munduko landa-biztanleria gainditu egin zuen eta aurreikuspenek adierazten dute 2050ean ia %70 izatera iritsiko dela. Hiriek inpaktu handia dute nazioen garapen ekonomiko eta sozialean. Egiazko plataformak dira non pertsonak bizi diren eta lan egiten duten, non enpresek beren jardura garatzen duten eta zeinen esparruan zerbitzu ugari eskaintzen diren. Gainera, baliabideen kontsumo-zentro handiak dira. Kalkulatzen da gaur egun hiriak mundu-energiaren %75eko gastuaren arduradunak direla eta negutegi-efektuaren arduradunak diren gasen %80 sortzen dutela. Hiri-ingurune batek ageri duen eszenatoki honen aurrean efizientzia, garapen jasangarri, bizi-kalitate eta baliabideen kudeaketa zuhur baten gero eta eskari handiagoarekin, Administrazio publikoek eboluzio bat planteatu beharra dute hirien kudeatze-ereduetan. Horretarako, informazioa eta komunikazioaren teknologien (IKT) aplikazioa ezinbestekoa da eta Smart City kontzeptuan agertzen da, zeinek aurreratzen baitu bere zerbitzuekin gauzen interneta deitu izan zaiona eta geroko Interneta bera ere.



Financing Social Impact: Funding social innovation in Europe - mapping the way forward

Egilea: **Europar Batzardea**

Asmo sozialak dituen berrikuntzaren eremua ziztu bizian ari da garatzen mundu guztian metodo eta erakunde berriak, haren efikazian konfiantza eta haren inpaktuaren frogak gehitzea sortaraziz. Berritzaile sozialak gobernuen funtzionatzeko era, gizarte zibilaren eragiteko era eta enpresen jokatzeko era aldatzen ari dira. Barruti horretan konpromisoa, esperientzia eta energia konbinatzen ari dira nahiz eta oraindik ez izan beste eremu batzuek dituzten laguntza-azpiegitura sistematikoak eta sofistikuak - bereziki finantzazio baterako irismena eta funts-hornidura egokia. Eraitza hau da: ideia onak falta ez badira ere, oso gutxi direla merezi duten inpaktukoak. Txostenak adierazten du non egotea gustatuko litzaikeen hamar urte barru berrikuntza sozialari. Halaber, azpimarratu egiten du azpiegiturako hutsune desberdinak gaindituta egon beharko luketela landa heldutasuna lortu arte gara dadin eta hori lortzeko gomendioak egiten ditu.



Environmental Outlook to 2050 (Key findings)

Egilea: **OCDE /ELGE**

Politika berriak praktikan jartzen ez badira eta munduan orain arte bezala funtzionatzen jarraitzen badu, biztanleria hazkorren eta jardura ekonomikoaren presioak gehituz joango dira ingurumenaren gain. Environmental Outlook-aren edizio hau ereduaren proiektioetan oinarriturik dago, ingurumenaren irudi balizko bat egiten du 2050erako. Txostena Outlook-aren aurreko edizioan identifikatu ziren lau eremutan zentratzen da arreta presazkoa eskatzen duten heinean: klima-aldakuntza, biodibertsitatea, ura eta osasuna eta ingurumena.



La adecuación del Sistema Educativo a las necesidades de la Actividad Socioeconómica de la CAPV

Egilea: **CES**

Dokumentu honek lan-merkatua erasaten duten aldagai bat baino gehiago aztertzen ditu, hezkuntza-sistemaren eskaintzaren eta lan-merkatuak egiten duen kualifikazioen eskariaren artena dagoen doikuntza-maila aztertzen du eta hobekuntzako proposamen-dekalogo bat eskaintzen du eskal hezkuntza-sistemaren efizientzia gehitzeko. CESen iritziz, hezkuntza-sistema errealitate sozioekonomikora egokitzea, aldi berean, behar bat da eta gizartearen eskakizun bat.



Igualdad y RSE. Guía para pymes

Egileak: **Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad y Forética**

Argitalpen honek laguntza-tresna bat izan nahi du eteei eta mikroeteei berdintasuna txertatzen EESeko enpresa-estrategian. Gidak nabarmentzen duenez eteek zailtasun bereziak dituzte EESeko estrategia bat gizonetzkoen eta emakumezkoen artean aukera-berdintasunera bideratua inplementatzeko hiru faktorerengatik: EESaren ez-ezagutza handiagoa enpresa handiekin konparatuta, enpresaren sentiberatasun-gabezia berdintasun-gaian eta baliabideen eta tresnen urritasuna.



Towards a Green Economy: Pathways to Sustainable Development and Poverty Eradication

Egilea: **UNEP**


Green Economy Report UNEPen Ekonomia Berdeari buruzko Ekimenak bildua da mundu guztiko ekonomialari eta adituekiko lankidetzan. Oro har, ekonomien ekologizazioa ez dela eragozpen bat erakusten du baizik eta hazkuntza-motor berri bat dela; enplegu onen sortzaile argi bat dela eta bizi-estrategia bat ere badela txirotasun iraunkorra ezabatzeko. Txostenak badu politikariak motibatzeko helburua ere inbertsioak gehitzeko baldintzak sor daitezen, horrela ekonomia berde batera igarotzeko.



Manual de conceptos básicos de gestión económico-financiera para emprendedores

Egilea: **BEAZ**

Eskuliburu honek gai hauetan prestatu gabeko ekintzaileei kezka eta segurtasun-eza gehien ematen dien aspektuetako bat lantzen du: kudeaketa ekonomiko-finantzarioa. Ideiaz harago, pertsona ekintzaileek aspektu ugari kontsideratu behar dituzte proiektuaren bideragarritasunaz ziurtasun halako bat izateko: negozio-plan bat Garate, merkatua eta konkurrentzia aztertu, kapitala lortu, forma juridiko bat hautatu etab. egin behar dute. Liburuaren xedea da plangintza ekonomiko-finantzarioa, egoera kontableak, balantzea, emaitzen kontua, altxortegi-fluxuak, banku-finantzazioa arrisku-kapitaleko funtsen bitartez, edo inbertsioen itzulkinen balioespina irisgarriak izatea enpresa bat sortze- edo eta hazte-proiektu bati ekiten diotenentzat.



The urban and regional dimension of Europe 2020

Egilea: **Europar Batzordea**

Argitaratu berria da zazpigarren txostena kohesio ekonomiko, sozial eta lurraldekoari buruzko aurrerapenaz, non agerian jartzen baita Europa 2020ren strategiaren hiri- eta erregio-dimentsioa. Kohesio-politiketarako batzordearen lege-proposamenak oso hurbiletik jarraituz 2013aren ondoren, txostenak ebaluatu egiten du zer eratarako kohesio-politikaren testuinguruan, erregioek eta hiriek lagundu dezaketen hazkuntza adimendun, jasangarri eta barne-hartzaile bat izaten eta Europa 2020ren helburuak lortzen. Txosten honek erakusten du hiriek eta erregioek garapen-arazo eta hazkuntza-ahalmenaren konbinazio desberdinei aurre egiten dietela. Hori da arrazoi nagusietako bat, zeinaren bidez kohesio-politika planteamendu bateratu bat erabiltzen duen tokiko behar eta aukeretara egokitzeko.



El Libro Blanco del envejecimiento activo

Egileak: **Junta de Andalucía, Consejería para la Igualdad y Bienestar Social**

Adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko tresna bat da, haien Osasuna eta ingurunea; mendekotasun-egoerak prebenitzeko eta haien segurtasun juridiko, ekonomiko eta fisikoa bermatzeko, bai eta zahartzaroaren ikuspen estereotipatuari kontra egin eta errealitateari doituak haren irudi bat proiektatzeko ere.

Haien partaidetza aktiboa sustatzeko liburu bat gizartea eraikitzen, hezkuntza eta prestakuntza bitizan zehar sustatzeko, eta belaunaldien arteko lankidetzeta eta solidariotasuna.

Aurkezpenak

Eskura dauden aurkezpenak kontsulta itzazu Innobasqueko Slideshare kanalean [slideshare.net/Innobasque]



EES i-Taldearen Ibilbidea. Administrazio publikoa - Joseba Amondarain, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011ko azaroa



Innobasqueren kokamendua gizarte ekintzaile batean: Empresa Azeleratzailea - Ignacio Lacunza, Innobasque, 2011ko abendua



Gosasun, bizi-ohitura osasuntsuago baten aldeko mugimendua - Lola Elejalde, Innobasque, 2011ko azaroa



Eskalatzeko ilusioa - Aitor Pérez de San Roman, Urkide Ikastetxea, 2011ko azaroa



Strengthening industry - academia cooperation: challenges and opportunities for European service robotics - Bruno Siciliano, Università di Napoli Federico II, 2011ko abendua



Service robots business perspectives - Claus Risager, Danish Technological Institute, 2011ko abendua



Zerbitzu-robotika irakaskuntzan - Toni Ferraté, Ro-botika, 2011ko abendua



Zerbitzu Robotikaren Egoera eta Ikuspegika Euskal Herrian - Joseba Jauregizar, Tecnalia, 2011ko abendua

Gure bazkideak..... Innobasqueren balioa

Azken hiruhilekoan 16 antolaera berri sartu direlarik,
Innobasquek 2011. urtea
987 bazkide
berrirekin itxi du.

BERDINTASUN POLITIKETAKO NAZIOARTEKO BERRIKUNTZA ZENTRO ELKARTEA-KORAPILLO

- Gizon eta Emakumeen arteko berdintasun-politikak, berrikuntza.
www.ciinpi.com

HIZKUNTZ INDUSTRIEN ELKARTEA EUSKAL HERRIAN - LANGUNE

- 30 enpresa baino gehiagoren taldekatzea itzulpengintza, edukiak, hizkuntzaren irakaskuntza eta teknologien eremuetan.
www.langune.com

C2MASI, S.L. - Lurralde-garapeneko prozesuak kultura, arteak, sormenaren bitartez, berrikuntza irekie eta lankidetzakoa sustatuz. Komunikazio-estrategietako aholkularitza.
c2masi.wordpress.com

EKAIDE PROJECT DEVELOPMENT, S.L.

- Diseinua, garapena eta web-irtenbideak ezartzea, aplikazio mugikorak eta enpresa-kudeaketako sistema eta aholkularitza TIC.
ekaidepd.com

EL BUREAU DE LA COMUNICACION Y LA PUBLICIDAD, S.L.

- Komunikazioa eta publizitatea.
elbureau.net

ELKANO CONSULTING IMG, S.L.

- Nazioartekotze-aholkularitza
www.elkano.eu

E-TECH MULTIVISIÓN, S.L. - Ikus-entzunezko teknologia.
www.e-techmultivision.es

EXCELENCE COLABORATION SOLUTIONS

- Aholkularitza operazionala, lankidetzaren irtenbideen ezarpena, proiektuen zuzendaritza eta aholularitza, SSM coaching (Simply Smart Management)
www.ec-solutions.es

GESE HOLDING DE SERVICIOS ENERGETICOS, S.L.

- Aholkularitza, asesoratzea, energi-aiditoretza eta azterlangintza energia-efizientzia gaietan
www.gese.es

GRUPO URBEGI

- Zerbitzuak industria-azpikontratazioaren, garbikuntza eta dokumentuen suntsitze konfidentzialaren inguruan.
www.urbegi.com

KERA-COAT, S.L. - Zeramika eta porlanaren neurrirakoaren ikerkuntza, diseinua eta formalizazioak ekoiztea, elektroforesiaren bidez aplikagarriak material desberdinetan.
www.kera-coat.com

KLAP INDUSTRIAL IDEAS, S.L.

- Asesoretza eta aholkularitza enpresa-berrikuntzan eta -estrategian
www.klap.es

ESTUDIO MARINA GOÑI - Markak sortu eta kudeatzea.
www.marinagoni.com

NUEVA GESTIÓN INFOGEST, S.L. - Enpresa- eta lanbide-munduari zuzendutako aldizkaria.
www.nuevagestion.com/euskadi

ONOFF IMAGEN Y COMUNICACIÓN, S.L.

- Diseinu grafikoa eta web-ingeniaritza.
www.onoff.es

VIAJES IBERIA BCD TRAVEL BILBAO - Negozio-bidaien kudeaketa.
www.viajesiberiabusiness.com



Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentzia, irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatua da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileek, enpresa pribatuek, euskal instituzio publikoek, euskal enpresaburuen eta langileen ordezkari instituzionalek, eta berrikuntzarekin zerikusia duten mota guztietako erakundeek eratua. Nola kapital publikoak (Eusko Jauriaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia) hala pribatuak finantzatua da, bere 1.000 erakunde bazkide baino gehiagoren ekarpenen bitartez.

Innobasquek plataforma indartsu bat eta lankidetzaren sare bat eskaintzen du eragile horientzat guztientzat, haren bitartez euskal gizartearen berrikuntza sustatu eta hedatzeko, enpresetan, euskal erakundeetan eta gizarte osoan eraldaketa-dinamikak sortzen lagunduko duten ekitaldiekin, Euskadiren irudia hedatuz gizarte berritzaile, eta I+G+b-aren gune aurreratu gisa.

Innobasquek esku hartzen du honako administrazio-kontseilu eta organo zuzendarietan: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES); administrazio-kontseilua eta organo zuzendarietan The Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL), The Basque Center for Applied Mathematics (BCAM), Euskalit, Ikerbasque, Orkestra (Lehiakortasuneko Euskal Institutua) Fundación Loyola Media Berrikuntza, Iñaki Goenaga Zentro Teknologikoen Fundazioa, IK4, LeiBerri, Gipuzkoa 2020, Lehendakari Batzorde Aholkularia, Langune, eta b20 (ILSI, Institute for Large Scale Innovation, San Francisco), Tecnaliako Berrikuntza eta Gizartearen Dibisio Kontseilua, Ikusmer. Guillermo Ulacia da Innobasqueren lehendakaria 2009az geroztik.